

KARIKARA



GUKA

ZOURDINE THIOR

ERRESPETUAREN KOLOREA



ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



ARDORA



Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 © 623 47 57 52
 ardoraaraindegia@yahoo.com
 ORIO

arkaitz taberna
 ...orio...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

azkue

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak



- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoan instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

Joseba
 AROZTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN

KAİOA



kaioa_denda
 www.kaioa.es



KARKARA 452

2023-UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Iritzia Onintza Lete Arrieta
<i>Aurrena irakurri</i> | 17 | Herrian galdezka |
| 6 | Hitz tantak Andrea Zipitria
<i>Libe Esnal: "Asko geratzen zait ikasteko gurasoengandik"</i> | 18 | Elkarrizketa Aritz Mutiozabal
<i>"Futboleko gehiegi onartu da jokalaria iraintzea"</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Orio harro</i> | 24 | Guka Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Norberaren gorputzaz harro, lodifobia jomugan</i> |
| 11 | Gutunak | 32 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Orion oro hori?</i> |
| 12 | Guka gara! | 36 | Erreportajea Andrea Zipitria
<i>'Xatorra' hasi da zulotik ateratzen</i> |
| 13 | Moila bazterretik Egoitz Dorronsoro
<i>Ametzak</i> | 41 | Erreportajea Onintza Lete Arrieta
<i>Traineru kanpoko paladak</i> |
| 14 | Akuilua hartuta Adrian Garcia
<i>Nahi dugun turismoa</i> | 45 | Ikasleak idazle Orioko Herri Ikastola
<i>"Arraunean elkarrekin baldin bagoaz, txalupa hobeto doa"</i> |
| 15 | Puntua jarrita Mikel Portularume
<i>Paorra</i> | 46 | Plazan bazan |
| 16 | Euskara Jabier Zabaleta
<i>Antia: «Txikitan euskara lapurtu zidatela sumatzen nuen»</i> | | |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga Solaberrieta
Erredaktore taldea
Onintza Lete Arrieta
Andrea Zipitria
Aritz Mutiozabal
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Saioa Perona

Publizitatea

Leire Martija
Mikel Azkue
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Maitane Elduaen
Egoitz Dorronsoro
Adrian Garcia
Mikel Portularume
Jabier Zabaleta

Iñaki Iturain
Idoi Berasaluze
Mikel Aranzabal

Banatzzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
UDALA

Babesleak:





%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Katu
Horia
albaitaritza klinika

ESTROPALARIZ, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: **668891129**



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



BODEGA
KATXIÑA

Ortzaika, 20 · ORIO
943-58 01 66 · 606 36 76 93
www.bodegakatxiña.com · f i

Kepa Loidi
harategi-urdaitegia

24 orduz harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 · Orío · 943-83 25 65
www.kepaloidi.com · info@kepaloidi.com

BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44



JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA



LASTER
DESATASCOS

688 88 65 36 | 943-75 14 31
desatascos@desatascoslaster.com
ORIO | SORALUZE



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa



kamioiak



ibilbideak



generoa



garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Aurrena irakurri



ONINTZA LETE ARRIETA

Aurrena irakurri, eta gero hitz egingo dugu". Horrela amaitu zen lagun batekin izan nuen eztabaida. Min eman zidan. Nire iritziak ez zion balio, ezjakina nintzen bere begietara, eta zer pentsatua eman zidan: benetan nintzen ezjakina gaiak irakurri ez nuelako? Zehazki, zer irakurri ez nuelako? Eta irakurri eta hala ere nire ideiak mantentzen banituen, orduan zer esango zidan?... Feminismoaz ari ginen, edo ekologismoaz, baina asko inporta zaidan beste edozein gai izan zitekeen.

Zurien eta beltzen tartean eroso eta seguru bizi izandakoa naiz, gris guztiak albo batera utzita; horregatik ez diot lagunari oso gogor egin nahi.

Baina hausnartzea garrantzitsua iruditzen zait, nik behintzat, atzeraka nabaritzen baitut gizartea hainbat kontutan. Ez al zaizue iruditzen gero eta zailagoa dela onartutako diskurtsoaren aurka *baina* bakar bat esatea? Zergatik ezin naiteke feminista izan eta, aldi berean, mugimendu feministaren ikuspuntu batzuekin ados ez egon? Ekologista baldin banaiz, eolikoek kontra egon behar al dut derrigor-derrigor? Euskaltzalea naizenez, ezin al ditut euskararen inguruko politika batzuk kritikatu? Zergatik ezin dut esan oso arriskutsua iruditzen zaidala duintasunaren izenean lanbide bat ilegalizatzea?... Zenbat lanbide ez duin eta hilgarri daude gure inguruan? Zenbat ordenagailu, sakelako telefono eta abioiko txartel ditugu, ingurumena kutsatzeaz gain heriotzak eraginez egunero? Lodifobiaren kontrako diskurtso ederra duten zenbatek ez diote gaizki begiratuko edo iseka egingo uda honetan hondartzan bere sabel handia erakustera ausartuko diren emakume edo gizon horiei?... Pixkanaka, sakonekoa bigarren mailan gelditzen ari denaren sentsazioa dut, diskurtsoa baita inportantea, azalekoa, posea.

Bai, diskurtsoa da inportantea, azalekoa, posea... baina baita etiketaje hertsia ere: hau zuria da edo beltza da. Eta horrek berekin dakartza azken urteetan aparra bezala gorantz doazela uste dudana bi egitate oso arriskutsu: dogmatismoa eta moralismoa.

Orain, gizarteak eta sistemak ez dute Elizaren beharrik dogma eta moralara eartzeko. Jaungoikoagana sinesten genuen lehen euskaldunokitsu-itsuan; beste jaungoiko batzuetan orain, baina orain ere, itsu-itsuan. Ez al gara ari askatasun eta gauza eder asko galtzen ari justiziaz, berdintasunaz eta askatasunaz moztututako moralaren pean?

Agian ez zarete ados egongo nirekin. Hala bada, lasai gelditu kalean eta eman zuen ikuspegia; agintzen dizuet ez dizuedala esango aurrena irakurtzeko. ■■■

**"LASAI EMAN ZUEN
IRITZIA; AGINTZEN
DIZUET EZ DIZUEDALA
ESANGO AURRENA
IRAKURTZEKO"**

Libe Esnal: "Asko geratzen zait ikasteko gurasoengandik"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDREA ZIPITRIA

22 urte. Horiek daramatzate Esnal-Azpiroz familiak, udaro-udaro, Aiako igerilekua kudeatzen. Ordutik asko aldatu da igerilekua, hainbat berrikuntza izan baititu tartean. Kontakizunak ere anitz dira. Libe bi anai-arrebetako gazteena da, eta aurten, bere anaiak "bakarrik" utzi du igerilekuan. Izan ere, kanpoan dabil Manex. Haren faltan, aurtengo udan gurasoak eta alaba ari dira igerilekuaz arduratzen. **Zenbat urte daramatzazue zuk eta zure familiak herriko igerilekua kudeatzen?**

Anaia eta biok oso txikiak ginela hasi ziren gurasoak Aiako igerilekua kudeatzen; aurtengoa 22. udara izango da.

Asko aldatu al da urte hauetan guztietan igerilekua? Nola gogoratzen duzu lehengo igerilekua?

Urteek aurrera egin ahala, igerilekuaren itxura asko aldatu da; beharrei erantzuna emateko egokitu egin da. Azken urteetan izan dira aldaketarik handienak, igerileku txikia erabat aldatu baitzuten umeentzat dibertigarriagoa izateko. Aldi berean, bi zelaia elkartzu zituzten, eta igerilekuetarako irisgarritasuna hobetzeko aldapa berria eraiki zuten. Beraz, bai, ez da gu hasi gineneko igerileku bera.

Berrikuntzarik eskainiko al du aurten igerilekuak?

Ez, aurreko urteko egoera berean dago.

Hainbat festa eta kontzertu antolatu ohi duzue urtero. Aurten, zer?

Oraindik ez daukagu ezer aurreikusita, baina igerilekuak dituen ezaugarriengatik, aukera ugari eskaintzen ditu edonolako ekitaldiak egiteko. Gu beti ari gara herritarrei gustatuko zaizkien egitasmoak pentsatzen, eta edozein motatako iradokizunak ere ongi etorriak izango dira.

Nondik etortzen dira bisitariak Aiako igerilekura?

Bertako jendeaz gain, gehienbat inguruko herrietatik etorri ohi dira, Oriotik edo Zarauztik. Baina azken urteetan, izurriteaz geroztik, urrutia gotik datorren jendearen gorakada egon dela esango nuke.

Egunero, eta batez ere eguraldi ona egiten duenean ehundaka pertsona izaten dira igerilekuan. Eta guztia ondo kudeatzeko lan asko egongo da atzean. Herritarrek jakin dezaten, zein dira egunero egin behar izaten dituzuen lanak?

Eguraldiaren arabera lan gehiago edo gutxiago eskatzen du igerilekuaren kudeaketak, baina egun osoan daude zereginak; goizean hasi, eta gauean amaitzen dugu. Goiz partean dena prestatzen hasten gara, igerilekuen garbiketa 11:00ak baino lehenago egin beharra dagoelako eta, aldi berean, terrazako mahaia txukundu behar direlako; ordu berean irekitzen baitugu hori ere. Eguerdian otorduak ematen ditugu, eta jende kopuruaren arabera, lan karga aldatzen da. 20:00etan igerilekuak ixten badira ere, afariak emateko zerbitzua izaten dugu. Horiek amaitutakoan etxera joan, eta indarrak hartzen ditugu hurrengo egunerako.

Hainbeste urte bertan, izango duzue kontakizun bitxiren bat edota anekdotaren bat, ezta?

22 urtek askorako ematen dute, eta bizipen ugari izan ditugu bertan, bai. Azken finean, nire bizitzako udara guztiak igerilekuan igaro ditut. Gogoan dut txikiak ginenean umeentzako gauza asko egiten genituela: karaokeak, *Caribe-Mixek* girotutako diskotekak edota eguraldi txarra zenean, zelaian sortutako lokatzezko jolasak... Igerilekua udararo etortzen den senide bat bezala ikusi dugu gure etxean, eta urte hauetan guztietan izandako oroitzapenak, mota eta kolore askotakoak dira.

Zerbait aldatuko zenuke igerilekuan?

Azkenaldian aldaketa asko egin badira ere, beti dago hobetzeko zerbait. Jendeari igerilekurako sarrera errazteko irisgarritasunean lan egitea beharrezkoa da, eta datorren urteetan lan horiek aurrera eramatea espero dugu.

Aukera baduzu, gurasoen erreleboa hartuko al duzu?

Hori aurrerago pentsatu beharreko gauza da, nire gurasoak oraindik sasio betean baitaude. Asko geratzen zait ikasteko beraiegiengandik. ■



Orio harro

ARGAZKIA ETA TESTUA: AIORA

LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Ekainaren 28an, LGTBIQ+ Komunitatearen Nazioarteko Eguna izan zen, eta Orio Harro taldeak eman zien hasiera sanpedroei. Ezohikoa izan zen ekitaldia, kolorez, musikaz eta askatasun aldarriz bete zutelako plaza. Udalak eta herriko eragileek ere bat egin zuten aldarriarekin: Pello eta Nikolasa erraldoiak ortzadarraren koloretako lepokoekin atera ziren kalejiran; Salatxo abesbatzako kideek keinu berezia egin zioten Orio Harro taldeari, koloretako zapiak jantziz eta Orioko ereserkiaren ondoren kolektiboaren ikur den Alaskaren *Nori axola egiten dudana* abestia kantatuz. Gainera, Orioko banderarekin batera LGTBIQ+ kolektiboarena ere igo zuten. "Gora identitate eta sexu askapenerako borroka!" aldarrikatuz eman zieten hasiera jaiei, eta orduantxe lehertu zen festa Orioko plazan; kolorez bete zuen herria LGTBIQ+ kolektiboak. ■■■





PUBLIZITATEA



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



MARINO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29



Portu
Erreteta - Jantokia

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34



Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



OINARRI PODOLOGIA ZENTROA

Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



PAKO IMAZ

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36



IBER glass 
Automobilaren kristaleria
Errotulazioa
Hitzordua 689 34 11 01
edo LAIARANen

glass
edukioa

LAIARAN
Lanerako arropak
5XL arteko tailak
PERTSONALIZAZIOA

Estropalari, 12

Mila esker Ikastolari

DBH 4. MAILAKO IKASLEAK

ORIO

Iritsi da jada gure azken eguna, Ikastolari agur esateko momentua. Txiki-txikitatik egon gara ikastola honetan. Barre asko, negarrak, haserreak, urduritasunak eta baita zigorrak ere. Ugariak izan dira besarkadak eta baita iletik tiratzeko gogoak ere.

Baina, dena ondo ulertzeko, gure ibilbidean zehar gidatu gaituzten itsasargiei aipamena egin nahi diegu. Nola ahaztu HHn Mari Joserekin, Amaiarekin eta Mari Karmenekin makarroiekin egiten genituen lepokoak, edo Elirekin, Jaimerekin eta Aitziberrekin egin genuen denboraren makina. Orain itzuliko ginateke garai horretara, azterketarik eta estresik gabe.

Ahaztezina izan zen Astitzera joan ginen lehen aldia; Belenek, Iñigok eta Elik goizean goiz esnatu eta korrika egitera bidali gintuzten momentua. Usoa, Mari Karmen eta Marisa, eta haien esaldi mitikoak ere nola ahaztu: "Hitza zilarrezkoa da, isiltasuna urrezkoa", "Fa sostenituaaaaa" eta "kolore ubela" Usoaren eskutik.

Horrela, DBHra iritsi ginen beldurrez beteta. Gure lehen azterketa astea eduki genuen, urduritasunez gainezka, baina bat-batean itxialdia heldu eta denak etxean sartu geratu behar izan genuen.

DBH 3. eta 4. maila emozioz eta algaraz beteriko urteak izan dira, nahiz eta gorabehera ugari izan. Ikasbidaia lotuta, inoiz espero ez genuen bidaia izan zen. Familia bat osatu genuen denon artean, kuadrillak alde batera utzita, denok batera disfrutatuz.

Etapari berri bat abiatzeko, aurrekoa itxi behar izaten da. Eskerrik asko bihotz-bihotzez urte zoragarri hauengatik!

Orioko herriari eskertza

AZKUE-DEL HOYO ETA GOÑI-AZKUE FAMILIA

ORIO

Ezin dugu hitzez adierazi azken hilabetean Orioko herriarengandik jaso dugun maitasuna eta babesa; gure familiarentzat oso hilabete zaila izan da, eta benetan eskertuta gaude. Orioko Udalarri eskertu nahi diogu egoeraren aurrean eman zuen erantzun azkarragatik, baita gure ongizatea bermatzeko hartu dituen neurriengatik ere. Orioko emakumeen elkarteak ere gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, emakumeen eskubideen alde egiten duten borroka nekaezinean erakusten duten indarragatik. Orioko herriari ere eskerrak gure babesa emateko elkarretaratzean biltzeagatik eta isiltasun osoa mantentzeagatik, korapiloa sortu zitzaigun eztarrian. Gure ondoan egon zarete uneoro, indarra emanez eta bakarrik ez gaudela

adieraziz. Jaso dugun hitz, besarkada eta elkartasun keinu bakoitza garrantzitsua izango da gure errekuperazio prozesu geldo baina irmoan.

Gogoan izan dezagun Lourdes horrelako ekintzak gertatzen ez diren komunitatea sortzeko lan egiten dugun bitartean, bakea, errespetua eta segurtasuna oinarri duten etorkizun bat eraikitzeko.

Duela hemezortzi urte ez genuen huts egin familia osatzeko Orio aukeratu genuenean. Eskerrak, bihotzez.

ESKERTZA



ONINTZA LETE ARRIETA

Josefina Loiola zaraustarrak 40 urte igaro ditu Orion jubilatuei eskulan tailerrak ematen, eta erretiroa hartu du. Ikasleek eskerrak eman dizkiote egindako lanagatik.

HILDAKOAK

- **Pepita Uranga Izeta.** Orion, maiatzaren 26an. 76 urte.
- **Pilar Atorrasagasti Mayo.** Orion, ekainaren 14an. 72 urte.
- **Karmele Aranburu Lizaso.** Orion, ekainaren 22an. 65 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Garaian garaikoa



MAITANE ELDUAIEN (GUKA ESTRATEGIAREN KOORDINATZAILEA)



Topiko bat hemen: garaiak aldatu egiten dira. Komunikazio arloan ere ezin esan dezakegu zaharrak berri direnik. Garai bakoitzak bere izaera du, eta proiektu bakoitzak bere aldia. Teknologia berriek eta Internetek urte gutxiren bueltan hankaz gora jarri dute komunikazio prozesuen paradigma. Komunikatzeko molde berriak sortu dira, eta komunikabideei molde horietara egokitu besterik ez zaie geratzen.

Erronka berriei aurre egiteko xedearekin, Urolako Komunikazio Taldea (UKT) sortu genuen, 2019an. Azkoitiko Maxixatzen, Azpeitiko Uztarria, Zumaiako Baleike, Orio-Aiako Karkara, Zarauzko Hitza, Urola Kostako Hitza eta Erlo telebista batu ginen UKTra. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da gurea, komunikazio proiektu bat, tokikotasunari erantzungo dion egitura bat, lantalde bakarrean bilduta, aurrekontu bakarrarekin eta xede berberarekin: euskarazko tokiko hedabide onenak eskaintzea herritarrei.

Bost urteren ondoren, urte berriarekin batera, jauzi garrantzitsua emango dugu: GUKA markaren azpian bilduko gara kooperatibako hedabide guztiak. GUKA azken hiru urteetan egindako hausnarketa prozesuaren emaitza da. GUKA estrategia marraztu dugu, kalitatezko edukiak ipar direla.

Tokikotasunari erantzun nahi dion marka komun bat da GUKA, produktu zehatz bati baino,

proiektuari berari indarra eman nahi diona. Orain artean bezalaxe, hedabideak tokikoa izaten jarraituko du, aldizkaria eta .eus webgunea ez dira desagertuko. Beroketa lanak hasi ditugu, eta horregatik ikusten hasita zaudete GUKA izena gure euskarrietan. Baina jauzia marka kontua baino haratago doa: eskaintza bera berritzera goaz, bazkideei ahalik eta zerbitzu onena emateko asmoz.

Bazkideak eta zerbitzua. Horretan nahi dugu pausatu, arnasa hartu eta sakondu, komunitatea baita honi guztiari zentzua ematen diona, gure sorreraren eta izatearen muintetako bat. Komunikabideek daukaten desafio handienetako baten aurrean gaude, orde. Gure irakurleak gero eta digitalagoak dira; urtetik urtera, handitzen doa gure atari digitalak bisitatzen dituzten irakurleen kopurua. Horri erantzuteko, 30 langiletik gorako lantaldea daukagu, egunero, gurean ahalik eta informazio eguneratuen emateko, euskaraz. Komunitatea indartzearekin batera, bazkideetza digitalari ere heldu beharrean gaude, gure atariak doan direlako, baina ez debalde.

Zero kilometroko komunikabideak dira UKT osatzen dutenak, tokikoak, gertutik eta bertatik kontatzen ditugu herriko gertakariak, eta, nekazarien moduan, garaian garaiko produktuak erein behar direla uste dugu, kalitatezkoak, uztak onak izan daitezzen. Horretara dator, hain zuzen ere, GUKA estrategia. ■

Ametsak



EGOITZ DORRONSORO

Zer demontre gara, gure ametsak ez bagara? Besteen ametsen eraikuntza material soila. Besteen etxe orratzen eraikuntzako zimendu, habe, zutabe edo lur. Etxe ereduak berdindu diren tamaina berean berdindu zaizkigu ametsak. Egun aberats/dirudun izatearekin amesten dugu, zernahi, nonahi erostea helburu. Non geratu dira aske izateko nahiak... etxe orratzen zimendupean seguruenik...

Dirua amestera heltzeko, bortxatuak izan gara, isilduak eta gutxietsiak. Izorratuak, alboratuak, epaituak eta azpiratuak. Eta nola ez, ahaztuak izan dira. Iraganeko askapen ametsak belaunaldi batean izoztuz. Eta itzalek, zementuaren itzalek itsu, dirudun amestea geure erabaki libre dela sinetsi.

Gure bizitza eroste katalogo bilakatzeak, ondorioak ditu. Ezer ez da debalde. Gure gorputzei egindako mespretxu eta bazterkeria bera egin behar besteei gure pribilegioak mantentzeko. Eta gure asmoak ez epaitzeko derrigorrean begi onez ikusi behar lehen zalantzan ipinia: ertzainak kasu.

Bai, bai, ertzainak. Euskadiko gorputz errepresiboa, 300 torturatutik gora dituen. EAEn, askatasunaren ametsa alboratu eta espainiar estatuan eroso bizitzeko sentsaziora gerturatzeko erabilitako tresna bat: 1978an, PNVren interesetatik, konstituzio espainolaren baitan eraikitako askapen mugimenduen aurkako errepresio indarra. Gogoratu, *Egunkaria* ETArekin lotzeko lehen saiakera Atutxak egin zuela Ertzaintzaren txosten bat erabiliz. Are gehiago, Rodolfo Aresen aldaketek euskararen eskakizun eskasena ezarri eta espainiar izateko baldintza bakarraz, ertzain edo udaltzain izatea ahalbideratu zion edozeini.

Eta orain zer? Ardurak kanpora ... Ba, ez! Azken hilabeteetako eztabaidaren arduraduna Sabin Etxea bera da eta onartu beharko du: poliziak klase sozial ezberdin bateko kide izatea eta munduko beste edozein poliziekiko anaitasuna sentitzea edo sinbologia espainiar zein faxista edukitzea beraien errua dela. Egun batean, ertzainek greba egin eta hurrengoan irribarrez beste edozein grebalari (langile prekario) jotzera joango direla. Beraz, inori hausnarketa etikorik eskatu baino lehen egin ditzatela etxerako lanak Sabin Etxean.

Eta gainontzekook, berriz, deseraikitza. Eraiki ditugun instituzio erraldoi horiek eraitsi eta gure bizitzak argitzera. Egin dezagun berriz amets askatasunarekin. Biluzik esna gaitezen, gure erabakien baitan gorputzeko. Monzonen esaldia gure egin dezagun: "Zuek, utopikook, ekarriko duzue Euskadiren askatasuna". Utopiatik, errespetutik, parekotasunetik eta umoretik has gaitezen amesten; Egin zaitez artzain, eta ez ertzain! ■■■

**HAS GAITEZEN
AMESTEN UTOPIATIK,
ERRESPETUTIK,
PAREKOTASUNETIK
ETA UMORETIK**



Nahi dugun turismoa

Zuhaitzetako hostoek nola, herriek ere hala aldatzen dute kolorez urtaroarekin bat. Udaberri goxoan loratutako grina guztiz askatzen da udan, eta bestelako kolorea hartzen du Oriok: errio inguruko arranplak gaztetxo betetzen dira, uretan murgiltzeko prest; jatetxeetako terrazak hartzen dituzte bazkaltiarrek bazkalondo luzeetan; erromesek arnasa hartzen dute herriko iturrietan, bidea hasi besterik egin ez dutela jakitun; hondartza inguruak bizi propioa hartzen du, hango jatetxe, taberna, hotel eta kanpinak itsasoarekin elkar elikatuta.

Txamarrak armairu hondoon gorde eta galtza motzak aurre-aurrean jartzen ditugun bezala, herria ere prestatzen da uda sasoirako: sorospen zerbitzua

eta kabinak hondartzan, txu-txu trena joan-etorrian, eta aire librean gozatzeko musika, antzerkia eta zinema. Arlo pribatuan ere aritu dira prestakizunetan, urteko hilabete bero eta emankorrenei aurre egiteko. Familiarteko enpresa txikiak dira turismoaren bueltako gehienak, ekonomia zirkularraren mesedegarri. Gainera, uda aukera bilakatzen da herriko ekintzaile gazteek euren burutazioak martxan jartzeko.

**PARADIGMA ALDATU
DA: ZENBAT EZ DA
HORREN
GARRANTZITSUA, BAI,
ORDEA, NOLA**

Aurtengo aurreikuspenak onak dira, ostatuetako okupazioari dagokionez. 2022an pandemia aurreko datuak berdindu ziren ia. 2023ko lehen lau hilabeteetako datuek, berriz, goranzko joera erakusten dute. Azken hamarkadan ez da aldatu bisitarien jatorriaren profila. Estatuko bisitarien merkatu finkoa du Oriok; gehienak Madril eta Kataluniatik etorritakoak dira. Gertuko turismoarekin bat —Euskal Herriko turista eta txangozaleak—, herriak jasotzen dituen bisitarien oinarria osatzen dute. Azken bi urteetako datuen gorakada, berriz, nazioarteko bidaiariei zor zaie batez ere. Bisitari atzerriarren kopurua ia iritsi da pandemia aurreko zenbakietara. Frantziatik

HAUXE BAI JENEROA!



etorritakoak dira gehienak; gainerako atzerritar guztiak bezainbeste ia.

Nolanahi ere, azken urteetako paradigma aldatu da turismoan: zenbakiak balioa galdu dute. Zenbat ez da horren garrantzitsua, eta bai, ordea, nola. Bisitari bakoitzaren batez besteko egonaldia, gastua edo herrian uzten duen aztarna ekologikoa datu interesgarriagoak dira, turismo politikak zehazteko. Ezinbestekoa baita herritarren eta bisitarien arteko orekari eta elkarbizitzari eustea, eta, horretarako, beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea. Adibidez, plan orokorrak oraintxe mugatu ditu etxebizitza turistikoak ezartzeko baldintzak. Turismoko ikerlariek bi bidaiari mota desberdintzen dituzte,

motibazioaren arabera. Batzuk beren buruarekiko edo beste kultura batekiko jakin-minak mugiarazten ditu, haien barne hazkunde pertsonalari ekarpen bat egingo dion toki bat ezagutzeko nahiak. Beste bisitari batzuek, ordea, beren egunerokotasunari ihes egitea dute xede, ohiko arau eta betebeharrak itogarriak ahaztea. Edozein tokitara abiatu daiteke haien gurutze-ontzia, bidaia horrek norberarekiko eta gizartearekiko erantzukizunak arintzen dituen bitartean. Lehen motakoak erakarri eta bigarrenak uxatzea litzateke proposena guretzat. Horretarako, Oriok baditu ezaugarri bereizgarriak: euskara, itsas ondarea, gastronomia, natura... Horiek dira kolorez aldatzen diren hostoen adarrak eta enborrak.

PUNTUA JARRITA

Bertsolaria: Mikel Portularrume
Paorra.

Doinua: Gazteak Lizargatez.

1

Lehorretik estropa

lasai ikusten da?
Ez pentsa ariko naiz
benga eta benga,
nahizta mundu hortatik
ni nagon irtenda,
diodan maitasuna
ez dago etenda.

2

Beti nahi izan degu

guk ubera laga,
aitonaren garaitik
paladaz palada.
Gauzak aldatu dira
hori ere hala da:
orain ikusten dira
seme ta alaba.

3

Nutrizionista, core,

traineru berriak,
Hiru(rogei)ta hamabost kilo
azpiko mediak.
Ta *diecinueve treinta*
jaisten komeriak...
urruti daude lehengo
erreferentziak.

4

Azkenengo abenturak

Zierbana, Sotera.
Zaharrenak gabilta
sartu eta atera.
Proiektu ederren bat
badator oster, a,
gustura itzuliko
gara tostartera.

Hurrengo bertsolaria:

Zigor Esoain.
Puntua:
Nekez joaten zera
Bi paretan bila?



Antia: «Txikitan euskara lapurtu zidatela sumatzen nuen»

TESTUA: JABIER ZABALETA

Borja Antia Agirre Zumarragan jaio zen, orain dela 60 urte, baina 21 urte daramatza Orion bizitzen eta hemen antolatu du bizimodua, gustura. Txikitan ez zuen aukerarik izan euskara ikasteko eta, gaur egun, Orioko euskaltegia dabil, B1 mailako ikastaroa egiten. Azterketaren bezperatan harrapatu du KARKARAK, euskararen inguruan hitz egiteko.

Zumarragan, txikitan, ez omen zenuen euskararik ikasi...

Ez. Aitak bazekien euskaraz, baina amak ez, eta familiako hizkuntza, orduko giro hartan, gaztelania zen erabat. Eskolan eta kalean ere erdaraz egiten genuen. Nagusitutakoan hasi nintzen euskara lantzen. Santander bankuan nenbilen lanean, Hernanin, eta hango euskaltegia apuntatu nintzen. Ordu asko egiten genituen lanean, eta zaila zen euskaltegirako denbora hartzea, baina gustura ibili nintzen. Gero, laneko kontuengatik, utzi egin behar izan nion. Orain, jubilatutakoan, berriro heldu diot, eta pozik nabil: B1 mailako ahozko azterketa egingo dut hilaren bukaeran eta, titulua atera ala ez, datorren ikasturtean ere segitzeko asmoa daukat. Poliki-poliki, baina lortu nahi dut euskaldunon taldekoa izatea.

Zerk bultzatuta hasi zinen euskara ikasten?

Gaztetan, nire identitatearen zati bat mutilatu zidatela sentitzen nuen. Ni hemengoa naiz, euskaldun sentitzen naiz; aitak euskaraz bazekien eta, niri, berriz, euskara jakin gabe, zerbait falta zitzaidala sumatzen

nuen. Gorputzeko zati bat faltako balitzait bezala. Euskara lapurtu zidatela sumatzen nuen, nire izaeraren parte garrantziko bat.

Bestalde, Orion 21 urte egin ditut dagoeneko —nire alaba oriotarra da, hemen jaioa— eta, denbora horretan, garbi ikusten nuen ez nintzela iristen herriko bizimoduan guztiz sartzerara, euskara falta zitzaidalako. Orion euskaraz egiten dira gauza asko eta asko, eta nik galdu egiten nituen: ekitaldiak, kartelak, bertso-saioak, kantak, herriko aldizkari hauxe bera... Urte askotan ez naiz gauza izan aldizkariaren edukiak ulertzeko; argazkiak eta ikustearekin konformatu behar nuen. Gauza inportante asko galtzen nituela sumatzen nuen, eta horregatik erabaki nuen euskaltegia



izena ematea. Iaz nire kasa ikasten hasi nintzen, autoikaskuntza-saioen bidez, eta aurtun B1 mailako talde batean ibili naiz eta Mintzalagun programan ere izena eman dut.

Zaila izaten ari da ikasteko prozesua? Zer eman dizu?

Zaila da eta denbora eskatzen du, baina oso gustura nabil eta ari naiz aurreratzen. Talde polita juntatu gara eta giro onean gabiltza, bakoitza bere erritmoan. Euskara ikasteak aukera ematen dii herriko martxaren berri hobeto jakiteko. Orion jende gehienak egiten du euskaraz, eta niri oraindik kostatu egiten zait, baina joango naiz, pixkana-pixkana, giro horretan sartzen eta gero eta gehiago eta jende gehiagorekin egiten. ■

Zer eskaintzen dizu Aiako igerilekuak?



ESTIBALIZ AGIRRE

"Zarautzarrak gara, baina dezentetan etortzen gara Aiako igerilekura, eta aurten bonoa erosi dugu. Iaz ere asteburuetan etortzen ginen, eta hobeto ateratzen zaigu bonoa hartuta. Oso igerileku eroso iruditzen zait umeen etortzeko: ur jolasak daude ume txikientzat, eta ez dago arriskurik igerian ez dakitenentzat. Horrek lasaitasuna ematen du; begiratu behar duzu, bai, baina lasaitasun horrekin. Gainera, umeek asko gozatzen dute bertan, giro oso ona dago, eta askotan etortzen gara asteburuetan ere bazkaltzera edo afaltzera; dena bertan daukazu. Umeak gustura egoten dira, eta gurasoak ere bai, igerilekua iluntzeetan ixten dutenean ere, jolasteko tokia dutelako, izan zelaia, izan beren etxetxo... Plan polita da, eta instalazioak ere ondo daude".




UNAI COTANO

"Igeri egitea gustatzen zait, eta egunero ez bada, ia egunero erabiltzen dut igerilekua. Eguerdian beti egoten da aprobetxatzeko moduko tarteren bat. 25 metro luze ditu igerilekuak: Orioko eta Zarauzko igerilekuen luzera bera du, beraz, primeran dago. Duela urte batzuk sakonera gehiago zuen, baina gero obra egin eta gutxiago utzi zioten, eta horri esker, orain ura ez da hain hotza egoten. Eguzkitan bi egun egoten bada, temperatura ona hartzen du. Udan, kanpinean bezala sentitzen zara hemen, kristorena da. Haurrek ere ederki pasatzen dute; bakarrik etortzen dira, zoragarria da. Toki asko dago, ondo hartzen zaituzte, eta oso ondo jaten da, gainera. Prezioari dagokionez, ez zait garestia iruditzen egunero erabiltzen baduzu; merkea dela esango nuke".



JOSUNE AZPIROZ

"Neu ez naiz askotan etortzen igerilekura bertara, eguzkitan egoteko arazoak ditudalako. Baina igerilekuko tabernara sarri etortzen naiz bazkaltzera nahiz afaltzera. Pilik beti gauza goxoak prestatzen dizkigu, eta zerbitzu oso ona eskaintzen dute. Belarretan egotera eta bainu bat hartzera ere gustuko dut, baina gutxitan etortzen naiz. Zalantzarik gabe, udan igerilekua herriko toki inportantea da; herria bete egiten du, eta bertako ume, gazte eta gurasoak atera ere ez dira egiten igerilekutik. Pixkanaka gauzak berritzen ere ari dira: igerileku ingurua berritu dute, txikientzakoak guinea ere bai, belardia zabaldu egin dute eta egoteko toki gehiago dago, tabernari ere estalpea gehitu diote... Hori bai, taberna eta sukaldea txiki gelditu dira, otordu mordoak ematen dutelako".



ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUA

Zarauzko Beilatoki-Errauskailuak errausketa-labea du orain, eta zerbitzu integrala eskaintzen du betiko profesionalekin eta instalazio moderno, eraginkor eta argitsuekin.

Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.

943 894 937 / 943 422 129 (24h) | memora.es
Abendaño Kalea, 2 - Zarautz



"Futboleant gehiegi onartu da jokalariai iraintzea"

ZOURDINE THIOR FUTBOL JOKALARIA

Arrazismoaren mamuak milaka aurpegi ditu, eta kirolean maiz azaleratzen da. Goi mailako futboleant gertatzen denean oihartzun handia izaten du, baina azpiko mailetan izaten denean, ia-ia oharkabeant igarotzen da. Zouridine Thior (Dakar, Senegal, 1997) oriotarraren aferak, ordea, jokalariaenganako irain arrazistak oso presente daudela erakutsi du.

Testua: **Aritz Mutiozabal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Tamalez, elkarritzeta honen motibo nagusia arrazismoa da... Egia esan, oso tristea da gaur egun oraindik ere futboleant irain arrazistak existitzea. Honek guztiak bukatu egin behar du behingoz. Jende askok sufritu du egoera tamalgarri honekin, eta orain

azaleratzen ari dira horren profesionala ez den futbol kategorietan ematen ari diren gertaerak. Nik uste dut gure kategorian, bigarren mailan edo hirugarren mailan, dezente pairatzen direla. Agian, Viniciusen kasuak lagun dezake honekin guztiarekin amaitu dezagun.

Viniciusen kasua ez da lehena, baina bere salaketak nazioarteko oihartzuna izan du. Hala ere, eztabaida dago horren inguruan. Zergatik jartzen da zalantzan agerikoa dena?

Zalantzarik gabe, berdin du iraina arrazista izan ala ez. Ez da batere atsegina zu jokatzen ariteza eta ikusleak "putakumea" deitzea. Azkenean, zuk ez duzu zertan hori jasan, baina zaletu askok uste dute sarrera ordaintzeagatik edo bazkide izate hutsagatik eskubidea dutela jokalariai edozer esateko. Jokalariaiok gure lana egiten dugu, eta beti

saiatzen gara ahalik eta ondoen egiten. Jakina, batzuetan ez zaigu espero bezain ongi ateratzen, bizitzako beste edozein gauzetan bezala... Baina futboleant gehiegi onartu da jokalariai iraintzea, ez bakarrik irain arrazistak, baizik eta edozein motatakoak.

Zuganako irain arrazista bat egin zuen zaletu batek. Baina ez zen kontrako futbol taldeko zaletua izan, baizik eta Logroñesko, zeure taldeko, zaletu bat. Hori ez al da arraroa?

Horrek harritu ninduen gehien! Inoiz ez nuen bizi izan antzeko egoerarik, egia esan. Gauzak behar bezala ateratzen ez direnean, guztia okertzen da. Ez ginen espero genuen denboraldia egiten ari, taldea ez zegoen bere momenturik gozoenean, kosta egiten zitzaigun partidak irabazi eta hiru puntuak lortzea etxean eta etxetik kanpo... Beraz, ulertzen genuen zaletuen ezinegona; beti gurekin ari ziren bidaiatzen. Baina taldea babesteari uzten diozunean eta pertsoneri min ematera igarotzen zarenean, erasotzen hasten zarela esango nuke. Are gehiago, partida baten ondoren baldin badatoz irainka, batez ere sare sozialetan. Oso gaizki pasatzen duzu, baina ahalik eta ondoen



eramaten saiatzen zara, profesionala izaten saiatzen zara. Nahitaez, ordea, ukitu egiten zaitu, eta horrek zure errendimenduan eragin egiten du. **Ur tanta bat, baina, nahikoa da gainezka egiteko, eta leheritu egin zinen.**

Hala da, bai. Irain ugari jasotzen dituzu Instagram eta Twitter bidez, eta guztiei eusten ahalegintzen zara. Baina pertsona orok du bere muga, eta partida baten bukaeran, nire familiako kideekin nengoela, iraintzera etorri zitzaizkidan. Agian, nik une hartan izan nuen erreakzioa ez zen izan egokiena, jokalaria profesionala naizelako eta irudi ona eman behar dudalako, baina uste dut akatsetatik ikasten dela. Edonola ere, denok ditugu geure mugak, eta horrenbeste irain jasan eta gero, burua galtzen duzu eta normalean erreakzionatuko ez zenukeen moduan erreakzionatzen duzu. Hala eta guztiz ere, argi utzi nahi dut ez zela izan eraso bat. Eutsi baino ez nion egin, irain egiteari utz ziezaion. Baina sare sozialetan gehiegi hitz egiten da, are gehiago talde batean gauzak oker badoaz. Lau haizetara zabaldu zuten nik zaletu bat erasotu nuela, eta hori ez zen horrela izan, inondik inora ere.

Kluba zurekin harremanetan jarri zen gertakariak hitz egiteko, ala zuzenean taldetik bakartu zintuzten?

Gertakariaren ondoren klubarekin batzartu nintzen, eta nik barkamena eskatu nien, batik bat nire jarreragatik. Beharbada, ez zen izan erreakzio zuzenena zaletuarengana jotzea, baina nik azaldu nien nire inguruan gertatzen ari zen guztia. Nire mugak ditudala eta ez ditudala zertan jasan gure zaletuen irainak partida baten ostean. Klubeko arduradunek erabaki zuten ni zigortzea eta taldetik bakartzea, azken partidak jokatu gabe utziz. Horraino, uler nezakeen. Nolabait ere, jokalaria profesionala izanda, irudi ona eman behar duzulako, eta klubaren irudia zaindu behar duzulako. Baina, aitzitik, haiengandik falta izan zitzaidan jendeari azaltzea benetan zer gertatu zen eta zerk bultzatu ninduen erreakzio hori izatera.

Logroñesek kaleratu zituen oharretan ez dago zuganako inolako babes irmorik. Alderantziz, zure esanak gezurtatzen ditu, eta aditzera ematen du ez zeukala gertatzen ari zitzaizunaren inguruko berririk.

Komunikatu hori ez dut irakurri, baina zerbait azaldu didate, bai. Ez dut xehetasun gehiagotan sartu nahi izan, ez zelako ni bizitzen ari nintzen gertakari isolatu bat; jokalaria guztiok jasaten genituen irainak partidaz partida. Esan bezala, zaletuen haserrea ulertzen duzu gauzak ez

direlako ateratzen ari guztioi gustatuko litzaigukeen bezala. Azkenean, goiko postuetan lehiatzeko moduko taldea osatu genuen, baina gauzak ez ziren behar bezala ateratzen, eta giro nahasia antzematen zen zaletuekin. Irainak hor zeuden, eta mundu guztia zen horren jakitun. Koloreko jokalaria ginenok irain arrazistak pairatzen genituen, eta gainerakoek, bestelako irainak. Honekin ez ditut Logroñesko zaletu guztiak zaku berean sartu nahi, baina beti zeuden lauzpabost min emateko prest.

Viniciusen kasuan, Real Madrilek itsu-itsuan babestu zuen eta, horrez gain, hainbat klubetan nazioarteko jokalariren babesa jaso zuen. Talde txikietan ez da halakorik gertatzen?

Agian, ez da Viniciusena bezalako kasu biralik izan. Niri dagokidanez, nire taldeko jokalarien babes irmoa jaso nuen, nire familiako kideena ere bai, eta batez ere, nire lagunena. Horrekin geratzen naiz.

2024ra arte zeneukan kontratua Logroñes taldearekin, baina akordioa etetea erabaki duzue.

Urte txarra izan da guztiontzat, taldearentzat eta jokalariontzat. Denboraldi hasieran finkatu genuen helburua ez dugu lortu eta, hori horrela, pentsatu genuen indarrean geneukan kontratua etetea zela onena eta datorren denboraldirako talde berri bat bilatzea.

Eskaintza ezberdinak kontuan hartzen ari al zara?

Horretan ari naiz, bai. Oraindik pentsatzen ari naiz datorren denboraldian zer egin... Eskaintza ezberdinak iristen ari dira, baina oraindik itxaron egingo dut pixka bat. Orain egun batzuk behar ditut gertatu den guztiaz deskonektatzeko, eta ondoren aztertuko ditut aukerak nire agentearekin.

Jokalaria gaztea zara, baina esan daiteke ibiltari samarra zarela dagoeneko futbol munduan. Zein izan da zure ibilbidea?

Txiki-txikitatik oso gustuko nuen futbola, eta Orioko taldean hasi nintzen jokatzeko nire kuadrillarekin. Hori bai, sekula ez nuen pentsatu honetatik bizi ahal izango nuenik. Nire lagunekin aritzen nintzen, eta kristoren ondo pasatzen genuen entrenamenduetan zein asteburutako partidetan. Handitzen zoazen heinean, konturatzen zara ongi moldatzen zarela; entrenatuz eta landuz gero, agian futbolaz bizi zaitezkeela. Zentzu horretan, Realean bizi izan nuen nire esperientziarik onena: futboleko baino gehiago, arlo pertsonalean pertsona hobea egin naute. Izugarri lagundu zidaten. Realeko kategoria



**"ASKOK USTE DUTE SARRERA
ORDAINTZEAGATIK ESKUBIDEA
DUTELA EDOZER ESATEKO"**

**"ETXEKOA BANINTZ BEZALA HARTU
NINDUTEN, HORREXEGATIK
ORIOARRA SENTITZEN NAIZ"**

**"NIRE BESTE AMETSETAKO BAT DA
SENEGALGO SELKEZIOAREKIN
JOKATU AHAL IZATEA"**

guztiak pasatu nituen, eta goiko taldean aritzetik pauso batera geratu nintzen. Azkenean, jende on asko dago, kalitate handikoa, eta irtetea erabaki nuen, nire ametsa bilatuz. Hala, tokatu zait Coimbrara, Andorrara eta Logroñesera joatea, eta niretzako hazten eta ikasten jarraitzeko esperientziak dira. Ziur etorkizunera begira ongi etorriko zaizkidala.

Eskuko telefonoko argazkian Realean jokatzeko zenueneko argazki bat duzu. Ametsa da txuri-urдинen lehen taldearekin jokatu ahal izatea noizbait?


Txikitatik izan dudana ametsa da, ia-ia Oriora iritsi nintzenetik eta Reala jokatzeko ikusi nuenetik. Azken finean, ez dakizu ametsak noiz beteko diren. Amesten jarraituko dugu errealtate bihurtu dadin.

Inoiz ez da senegaldarrik izan Realean?

Ez, ez da izan, nik dakidala.

Herrian komunitate zabala osatzen duzue Senegaldik etorritako herritarrek, eta oso futbolzaleak zarete. Nola bizi dute zure arrakasta?

Oso harro daude nitaz, eta asko pozten dira futbolari esker nire bizitza aurrera atera dezakedalako. Zoriontsu dira nire txikitako ametsa egi bihurtzeko gai izan naizelako, zeren ikusi baitute betidanik izan dudala gustuko. Aitak



urteak zeramatzan Orion bizitzen, eta ni haurra nintzela etorri nintzen hona bizitzera. Haur batentzat aldaketa gogorra izan zen: kontinente aldaketa, lagun ezberdinak, hizkuntza... Errealitate berrira egokitzea tokatu zitzaidan. Bizitzan suertatu zitzaidan egoerarik zailena izan zen. Aldaketa basatia izan zen, zalantzarik gabe! Nire amaren ondoan egotera ohituta nengoen, eta goizetik gauera Senegalen utzi nuen, nire anai-arrebekin eta aiton-amonekin batera, bizitza hobe bat izateko esperantzarekin. Ez nuke esango Senegalen gaizki bizi nintzenik, nire gertukoak han nituen, baina hona etorri nintzen, gustatu egin zitzaidan, eta geratu egin nintzen. Gehien harritu ninduen izan zen hau guztiz ezberdina izatea, erabateko aldaketa. Hala ere, egundoko lagunak egiteko sekulako zortea izan nuen; beti egongo natzaie eskertuta kuadrillakoei. Bat gehiago bezala hartu ninduten, eta niretzat errazagoa izan zen guztia, bai jendea ezagutzeko, bai futbolerako. Ez da erraza ezberdina den norbait, kolorekoa den norbait, etxekoa balitz bezala hartzea, eta horrexegatik oriotarra sentitzen naiz.

Senegal aldetik, zer dio zure amak?

Nire ama harro dago futbolaria naizelako, baina oinak lurrean izan ditzadan aholkatzen dit. Era berean, umila izateko eta gogor lan egiten jarraitzeko esaten dit nire ametsak lortzeko bidean. Bere babes osoa dut, eta benetan pozik nago nitaz harro dagoelako.

Iaz futboleko Munduko Txapelketan lehiatu zen Senegal, eta orain arteko bere emaitzarik onena lortu zuen. Nola bizi izan zenuten torneoak?

Oso gustura, egia esan. Iruditzen zait jokalaria oso onak daudela Senegalen, eta, hain justu, zintzilik dudan beste ametsetako bat horixe bera litzateke: nire herrialdeko selekzioarekin jokatu ahal izatea. Ohore bat izango litzateke, nire amak futbolean jokatzen ikusiko nindukeelako.

Nolako da Zourdin jekoa zelai barruan?

Jokalaria bizkorra naiz, eta joko eremuan gozatzea gustuko dut, baina, aldi berean, oso langilea naiz. Bat-batekoan oso iaioa naizela esango nuke. Areara erraz iristeko gaitasuna dut, eta jokaldia ongi amaitzen dakit. Oro har, gisa horretan definituko nuke neure burua.

Eta, eguneroko bizitzan?

Mutil nahiko lasaia naiz. Nire lagunekin eta familiarekin egotea gustatzen zait. Pertsona normala naiz, herriko mutil bat. Hemen bizi eta hazi naiz, eta ezerk ez du aldatuko hori.

Atzera biltzeko aukera izango bazenu, eta zaletuen irain horiek orain jasoko bazenitu, berdin erreakzionatuko zenuke?

Zaila da galdera horri erantzutea, baina aurretik erantzun dudak bezala, akatsetatik ikasten da. Halako zerbait berriro gertatuko balitz, egokiena albo batera egin eta ospa egitea da. Horrelako gertakariak saihesten jakin behar da. Beti egongo da futbol zelaietan iraindu nahi zaituen jendea, beraz, jaramonik ez egitea da onena, eta nirean buru-belarri jarraitzea.

Zer behar da honekin guztiarekin bukatzeko behingoz?

Hitz gakoa *hezkuntza* da. Balio onak erakusten badizkizute etxean, zuzen hezi baldin bazaituzte, pertsonenganako errespetua izango zenuke. Azkenean, guztiok berdina gara. Inor ez da bestea baino gehiago, eta ezin duzu jendea iraintzen aritu futbolean jokatzen ari delako. Inori ez zaio okurritzen supermerkatua joan eta kutxazaina iraintzen hastea bere lana egiteagatik. Edukazio kontua da. Norberak etxean ikusi eta entzuten duena egiten du kalean, eta hezkuntza bizitzako gauzarik garrantzitsua da. Batik bat, jendearekiko errespetua izatea. ■■■

LEHIAKETA

NIN DAGO? KARKARA?

Aurkitu Karkara pertsonaia aldizkarian.

Erantzuna **karkara@karakara.eus** helbidera

uztailaren 18a baino lehen.

Saria: Arbela Txakolinaren kaxa bat.

Karkara Komunikazio Taldean **bazkide** izatea da baldintza bakarra.



38. orrialdean
zegoen ezkutatuta

Ibai eta Uhaitz Munduate
bazkideak izan dira irabazleak.



Testua: Aiora Larrañaga Solaberrieta.
Argazkiak: Arnaitz Rubio Aprea.



NORBERAREN GORPUTZAZ HARRO LODIFOBIA JOMUGAN

Uda garaia iritsi da. Gizarteak ezartzen duen edertasun ereduak indarra hartzen du urte sasoi horretan, egiturazkoa den lodifobiaren eragina inoiz baino agerikoago bihurtuz. Lodifobiak nola eragiten duen ezagutzeko, eskualdeko hainbat herritarren testigantzak bildu ditu GUKAk. Horiek argi dute: "Ez dira kasu isolatuak, jende askok bizi ditu halakoak".

Martxoaren 4a Lodifobiaren Aurkako Eguna izendatu zuten osasungintzako hainbat profesionalak eta lodifobiaren aurkako aktibistek. Berez, Obesitatearen Aurkako Eguna bada ere, manifestuarekin salatu zuten edertasun ereduak eta horiek lortzeko dietaren kulturak gizartean "kaltea" eragiten dutela, eta gorputz masaren indizearen aitxakian, gorputz ereduak "patologizatu" egiten dela. Izan ere, adierazle horrek pertsonaren garaiera eta pisua hartzen ditu kontutan, hezur eta gihar masa aintzat hartu gabe: 19 eta 25 arteko Gorputz Masaren Indizea (GMI) dutenek izango lukete pisu egokia; 25-29,9 artekoek gehiegizko pisua; eta 30etik gorakoek obesitatea. Horra hor gorputz normala edo lodia izatearen arteko muga. Eustatek gaiak argitaratutako azken datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan herritarren %12,5k du obesitatea eta %33,5k gehiegizko pisua; beraz, herritarren %46 bere pisutik gora legoke. Horren aurrean, lodifobiaren aurkako aktibistek osasuna zenbaki hutsetatik haratago doala aldarrikatzen dute.

Mugimendu feminista aspaldi hasi zen lodifobiak gizartean, eta bereziki emakumeengan, zuen eragina aztertzen, eta gaiak duen garrantzia azpimarratu du Miriam Garcia Etxeberria Orioko Pertzetik elkarte feministako kide eta Emakumeen Etxeko arduradunak. "Pertsonak lodiak izateagatik jasotzen duten bazterkeria eta gorrotoa da definizioz lodifobia, baina askoz haratago doala esango nuke. Zapalkuntza sistema bat da, kanon estetiko oso markatu batetik ateratzen den edonoren aurka egiten duena. Argal egotea osasunarekin lotzen da; kontrakoa, berriz, gaixo egotearekin. Pertsona lodia bazara, izaera alferrarekin eta utziarekin lotuko zaituzte, kontrolik ez duen pertsona batekin".

Hasiera batean pentsa daiteke lodifobiak pertsona lodiei "iseka egitea" duela oinarrian, baina hori baino askoz "sakonagoa" dela argi du Garciak: "Eraso zuzenez gain, beste modu askotara bizi dezake lodifobia pertsona batek. Osasungintzan, esaterako, edozein arazoren aurrean, oso ohikoa da medikuek jatorria loditasunean bilatzea, benetako arazoan sakondu gabe. Horrez gain, autozaintza agindua ez betetzeagatik epai moralak jasotzen dituzte, baina kirola eginez gero ere, begiradak, txutxu-mutxuak eta isekak agertzen dira. Bizitzako arlo guztietan dago lodifobia: lan eremuan, harreman sexual nahiz afektiboetan, kulturen... Lodia bazara, bereizkeriaz tratatuko zaituzte lan esparruetan, eta zer esanik ez ligatzeko orduan; pertsona lodiak merkatutik kanpo daude".

Gorputz eredu normatiboa izatearen presioa era batera edo bestera gizarte osoak jasaten duela azaldu du Emakumeen Etxeko arduradunak. "XXI. mendea irudiaren, mugikorraren, sare sozialen eta *selfi*aren garaia da, eta, testuinguru horretan, gorputz lodia gorputz okerra da. Baina pertsona argal batek ere sufrituko du, presio handia izango baitu argal jarraitzeko, gorputza mantentzeko, kirola egiteko. Beldur ikaragarria diogu pisua hartzeari, horrek argaltasun proiektuan porrot egin dugula esan nahi duelako. Dietaren kulturen bizi gara, eta horrek eragin ditzaizke elikadura nahasmenduak". Presio estetiko horrek emakumeei bereiziki eragiten diela uste du, horiek beren bizitzak itxuraren inguruan eraikitze sozialetan izan direlako. "Itxurak erabakiko du gure estatus soziala, eta horrek gure egunerokoan eragin egingo digu. Adibidez, kanpoko begien arabera itxura zaintzen ez duen emakume batek egoera berean dagoen gizon batek baino zailtasun handiagoak izango ditu lan munduan". Garciaren arabera, argaltasunak "zoriontasuna" dakarrela ere saldu du sistemak. "Perfekzio hori, noski, ez da eskuragarria, baina bizi osoa pasatuko dugu hori eskuratu nahian. Azken finean, sistema patriarkalak argaltasuna bezalako promesa jasanezinak garatu ditu gure gorputzak kontrolatzeko".

Egoeraren aurrean, Garciak dio "oso beharrezkoa" dela lodifobiaz hitz egitea, baita aktibismoa ere. "Pertsona lodien aurkako diskriminazioa dagoela salatu egin behar da, eta gure errealitatearen analisi kritiko bat egin". Horrez gain, "diskurtso teorikoetatik irten eta gorputzera etortzea" ere oso beharrezkoa dela deritza. "Bizitako lodifobiaz hitz egin behar dugu, osatzeko eta elkar babesteko. Askotan, oso bakarrik sentitzen gara gai horren inguruan, inguruan ditugun lagunek ere esperientzia oso antzekoak bizi izan dituztela konturatzen garen arte. Esperientzia horiek elkarbanatzea oso sendagarria izan daiteke".

Eskatu gabeko aholkuak

Jon Alkain (Orio, 1998) eta Andoni Uranga (Orio, 1998) oriotarrak oso kontziente dira inguruan bizi duten lodifobiaz. Bi gazteek umorea erabiliz eman dituzte azalpenak, baina gaiak asko hausnartutakoak direla nabari da segituan. "Nik txikitatik izan dut handia nintzelako desberdina izatearen sentipena. Zenbat aldiz esan ote zieten medikuek gurasoei: 'Handiegia dator'". Lodia izatearen estigma horrek haurtzaroan eta nerabezaroan "markatu" egin zuen Alkain eta, azkenean, 17 urterekin, elikadura portaeraren nahasmendua izan zuen: sei hilabetetan 40 kilo



Jon Alkain eta Andoni Uranga. ARNAITZ RUBIO APREA

galdu zituen. "Hezurretan nengoen: 1,76 metro neurtzen nuen eta 64 kilo pisatu. Ikaragarria da, jendeak oso guapo eta eder nengoela esaten baitzidan, nahiz eta ondo ez egon". Horregatik, Alkainek argi du: "Gizarte honek onartzen zaitu itxura jakin bat baldin baduzu, baina edertasun eredu horretatik ateratzen baldin bazara, zaintzeko eta kirola egiteko esaten dizu etengabe, orain arte zaindu izan ez bazina bezala".

Gizarteko lelo horiek etengabe errepikatzen direla uste du Urangak ere, gizona izateari konnotazio edo esanahi "negatiboa" emanez. "Jendeak ohitura handia du lodi daudenei aholkuak emateko, bere osasunaren 'hobe beharrez' ari direla esanez, noski: 'on egingo dizu mendira ibiltzera joateak', 'jan itzazu karbohidrato gutxiago', 'fruta eta barazki gehiago izan behar ditu zure elikadurak', eta nola ez, 'kafearekin azukre beltza edo sakarina?'... Osasun fisikoa jartzen da aitzakia gisa, baina zer gertatzen da buruko osasunarekin?", galdetu du Urangak. "Akaso erretzen duenari etengabe esaten al zaio mendira joateko aire garbia arnastera, edo alkohola egunero edaten duenari errepikatzen al zaio ura edateko, alkohola gibelarentzat kaltegarria delako?"

Hala, bi gazteek uste dute presio sozial horrek "autoestimua arazoak eta norberaren auto pertzepzio zeharo okerra" dakartzala: "Jasaten duzun presioari aurre egiteko, desio duzun bezala argaltzen zarenean ere ez zara ondo ikusten, sekula ez da nahikoa, barru-barruan geratzen zaizulako urteetan errepikatu dizuten leloa". Hain zuzen ere, gizartearengandik jasaten den presioaz "oso gutxi hitz egiten" dela deritzo Urangak. "Norberak darama zama, inorekin partekatu gabe. Norbere gorputzaz lotsatuta bizi da jende asko; uste baino ohikoagoa da, gai-

"Pertsona lodien aurkako diskriminazioa dagoela salatu egin behar da"

"Garen bezala izatearen erruduntasun sentimenduak gizarteak sortu ditu"

nera". Pasarte bat kontatu du anekdota gisa: "Kuadrillan inauteritako mozorroa erostera joan eta aukeraketa egitean, neurri estandarren barruan dauden horiek normalean ez dute pentsatu ere egiten beraiei primeran geratzen zaien neurri hori lodiei ez zaiela kabituko. Mozorroa aukeratzen duten bitartean gizona atzean dago dardarka, sartuko al zaion pentsatzen". Konfiantzazko inguru batean, lagun artean egon arren, "lotsagatik" gertatzen zaiena oso gutxi azaleratzen dutela uste du oriotarrak: "Zaila da araututakotik kanpo zaudela aitortzea, sistema argalen neurrira eginga baitago".

Zentzu horretan, Alkainen eta Urangaren ustez, lodifobia lantzeko lantegiak "oso baliagarriak" dira horrelako bizipenak edo antzekoak jende askok izan dituela jabetzeko; izan ere, haiek diotenez, ez dira kasu "islatuak", eta horiei kolektibo gisa egin behar zaie aurre. "Garen bezalakoa izateagatik ditugun errudun sentimenduak gizarteak sortu dizkigu, sistemak ezartzen dituen arauen eta ereduaren bidez. Gaiaz jendearekin hitz egitean, askok garrantzia kentzen diote, eta, beste batzuek, berriz, gizarteari kasurik ez egiteko esaten dizute, baina era berean, konturatu gabe, beraiek ere erreproduzitu egiten dituzte jarrera lodifobikoak".

Bi gazteek sentitu dute lodi izate hutsak batzuei "molestatu" egiten diela ere. "Pertsona lodi bat pasatzen denean, jendeak uste du hari buruzko iritzia emateko eskubidea duela, berriz ere loditasun hori osasunarentzat kaltegarria dela aitzakia hartuta, noski. Askotan gertatzen da parrandara atera eta kuadrillaren baten aurretik pasatzean 'gordo', 'potolo' edo horrelakoren bat deitzea ere". Argi dute ezauzarri fisiko hori irain moduan erabiltzeak "pertsona lodiak estigmatizatu" egiten dituela. "Horrek eragin zuzena du pertsona horiek ezezagunen aurrean hartzen duten jarreraren, diren bezalakoa izateagatik baztertuak edo irainduak izateko beldurra sortzen dielako. Eta, berriro diogu: ez dira kasu islatuak, jende askok bizi ditu halakoak".

Aniztasunari balioa

Fama Thiam (Dakar, 1984) senegaldarra da, eta 12 urte zituenean utzi zuen jaioterria, Almerian (Espainia) bizi ziren gurasoekin elkartzeko. Europara iritsi zenean harridura eragin zion faktoreetako bat izan zen gizarteak pertsona lodiekiko zuen jarrera "ezkorra". Hala azaldu du: "Lodifobia arrazakeria bezala da. Zenbaiten esan dezakete gizartea ez dela arrazista, baina beltza denak etengabe sufritzen du. Gauza bera gertatzen da lodifobiarekin ere. Batzuei irudituko zaie lodia izateagatik ez dela inor baztertzen, baina gizona dagoenak badaki zer-nolako begiradak, komentarioak, jarrerak, bazterketak eta irainak pairatzen dituen". Hain zuzen ere, Thiamek uste du lodifobiarik ez dagoen herralde batetik iritsita, "are nabarmenagoa" dela bazterketa. "Senegalen pertsona handiak ederrak direla sinesten du gizarteak, eta oso eroso sentitzen dira beren gorpuzkerarekin. Eredu publikoan, hainbat arlotan ikus daitezke emakume eta gizon handiak erreferente gisa: komunikabideetan, musikan, politikagintzan, enpresa munduan... Gorpuzkerak ez du baldintzatzen pertsona horrek lor dezakeen arrakasta, ez dagoelako horren gaineko aurreiritzirik, ezta gorputzaren



Fama Thiam. ARNAITZ RUBIO APREA

arabera eraikitako hierarkiarik ere". European, aldiz, pertsona lodiak "seinalatuta eta epaituta sentitzea" ohiko dela deritzo. "Has gaitezen kontatzen zenbat emakume edo gizon lodi dauden esena publikoan: oso gutxi. Kasualitatea al da? Ez". Thiamek uste du eremu publikoan "oso argi" ikusten dela pertsona lodien bazterketa. "Hemen loditasuna utzikeriarekin lotzen da, eta horregatik ez da eredu gisa aurkezten".

Pertsona lodiei egiten zaien presioari aurre egiteko, Thiamentzat garrantzitsua izan da bere jaioterriko errealitatea ezagutzea. "Ez dut gezurrik esango; gaztea nintzenean, institutuan sufritu nuen bazterketa beltza eta gizena izateagatik, eta nire seme-alabek ere bizi izan dituzte antzeko egoerak. Hala ere, beste erreferente batzuk izateak asko lagundu izan dit neure buruarengan sinesten, argi nuelako zer-nolako emakumea izan nahi nuen".

Aian bizi den senegaldarrak askotan "penaz" bizi ditu Euskal Herriko pertsona lodi askok txiki-txikitatik dituzten konplexuak. "Haurrei txikitatik errepikatzen zaie lodiak daudela, eta errepikatuz eta errepikatuz, kalte handia sortzen die autoestimuan, zerbait oker egin dutela pentsatzen baitute. Pertsona horiek markatuta bizi dira heldutuz direnean ere. Horregatik, benetako gizarte inklusiboa nahi baldin badugu, oso garrantzitsua da lodifobiaz jabetzea eta horri aurre egitea". Prozesu horretan, lodiak dauden pertsonak "diren bezalakoak izateagatik harro" sentitzea ezinbestekoa dela uste du Thiamek. "Gainontzekoek baztertu ez gaitzaten, geure buruari balioa eman behar diogu, gizarteak ezarri nahi dizkigun konplexu guztiak alde batera utziz". Berak, esaterako, ozen aldarrikatzen du ez dela ezkutatzen. "Ez ditut arropa zabalak janzten arretarik ez emateko. Arropa estuak janzten ditut, nire



Ana Bringas.

ARNAITZ RUBIO APREA

gorputzaz harro nagoelako eta ez dudala ezkutatu beharrik uste dudalako". Izan ere, Thiamen iritiz, pertsona guztiak molde berekoak balira, "oso aspergarria" izango litzateke gizartea. "Aniztasunari zentzu guztietan eman behar diogu balioa".

Gorputzarekin adiskidetzeari helburu

Antzekoa da Ana Bringas (Zumaia, 1984) zumaia-rraren testigantza ere. "Handia" izateagatik begirada askoren jomuga izan dela sentitu izan du beti. "Ez naiz sekula estandarretan sartu eta zenbait unetan horregatik baztertua izan naizela uste dut, baina nire izateko moduarekin horri aurre egiten saiatu naiz beti. Neure buruarekiko izan dudana hautematean ere kalte egin didate jendearen iritziek, komentarioek edo begiradek", aitortu du. Bringasi irudiaren eta modaren mundua gustatu izan zaio betidanik, baina badaki arlo horretan ez duela lan gehiago egin bere gorpuzkeragatik. "Saiatu banaiz ere, arropa kate handiek sekula ez naute kontratatu beren dendetan saltzaile lanetan aritzeko, nahiz eta langile bila ibili eta nik lan hori betetzeko eskatzen zituzten baldintza guztiak bete".

Eredu horri aurre egin nahian, Bringasek arropa denda bat zabaldu zuen Zumaian. "Emakume askori ez zaie arropa erostera joatea gustatzen ohiko dendetan beren neurriko arropa ez dutelako aurkitzen, eta hori oso frustragarria da". Modaren industriak egiten duen presio hori bere azalean bizi izan du zumaia-rrak: "Beti gustatu izan zait arroparen bidez nire nortasuna adieraztea, eta oztopo asko izan ditut horretarako, nire neurriko arroparik ez nuelako aurkitzen ohiko dendetan. Garai batean gizonezkoen prakak ere erosi behar izaten nituen. Takoidun zapatak janzten nituen, gizonezkoen prakekin".

Jakin badaki, ordea, berea ez dela kasu isolatua, neska gazte eta emakume askok sufritzen dutela horregatik. "Nire dendara etortzen zen 12-13 urteko neska bat bere amarekin. Gogoan dut lehen aldiz lotsatuta etorri zela. Amak esan zidan praka estu batzuk nahi zituela, bere lagunek moda kate handietan erosten zituztenak bezalakoak. Neska ederra zen, baina konplexu handia zuen bere gorpuzkerarekin. Oso pozik jarri zen galtza batzuk sartu zitzaizkiolako, eta amak aitortu zidan ez zuela sekula horren zoriontsu ikusi. Ordutik dendara irribarre-tsu etorri izan zen; bere buruarekiko segurtasun handiagoarekin begiratzeko zituen arropak eta lasaitasunez aukeratzen zuen nahi zuena". Arazo hori bizi izan ez duenari "garrantzirik gabeko anekdota" irudituko zaiola uste duen arren, arropa erosi nahi den bakoitzean "araututakotik at sentitzea oso gogorra" dela uste du Bringasek. "Izan ere, horrek uneoro sentiarazten dizu ez zarela izan behar zenukeen bezalakoa".

Lodifobia "esan edo hitz soila baino askoz sakonagoa" dela uste du. "Haurra zarenetik pixkanaka-pixkanaka bide desberdinetatik



buruan sartzen dizkizuten ideiak dira, gizartean lodia den guztiaren aurka errotuta dauden us-teak". Bringasen iritziz, lodia izateagatik sortzen den bazterketa ez da arlo informalean bakarrik ematen, osasungintzan ere gertatzen dela deritzo. "Mediku bakoitzaren arabera da, baina askok edozer duzula ere, dena beti pisua-rekin erlazionatzen dute. Nik azaleko arazoak izan ditut, eta lehen aldiz artatu ninduen dermatologoak esan zidan elikadura zela nire arazo nagusia. Dietan hastea agindu zidan, garbi janda pasatuko zitzaidala eta. Oso oker zebilen, denbora tarte hartan okertu besterik ez baitzitzaidan egin arazoa. Espezialistaz aldatzeko eskatu nuen, bigarren iritzi bat izateko, eta, azkenean, jakin nuen nire azaleko arazoak ez zuela zerikusirik elikadurarekin".

Zumaiarrak aitortu du bera berez dela "handia eta zabala", baina ez dela beti egoera berean egon, "bakoitzak bizi duen une pertsonalak eragin zuzena" duelako gorputzean. "Garai batzuetan besteetan baino argalago egon naiz. Orain, adibidez, bigarren semea izan berri dut, eta pisua hartuta nago. Jakin badakit erosoago sentituko nintzatekeela taila eta erdi jaitisiko banu, baina hala eginda ere, gizartearentzat lodi egoten jarraituko nuke". Horregatik, bere buruari ez dio eskatzen gorputz eredu normatiboaren barruan sartzea, uste duelako "norberak erabaki" behar duela nola sentitzen den gustura, "gainontzekoen iritziei jaramonik egin gabe". Bringasen iritziz, gakoa "pertsonak diren bezala onartzea" da. "Bata bestearengandik desberdinak garela naturaltasunez hartu behar dugu, denak molde desberdinekoak garelako. Ezaugarri horiek ez genituzke irain bezala erabili behar. Harrigarria da haurrak bata besteari 'potolo', 'gordo' eta horrelakoak deitzen zeinen goiz hasten diren ikustea". Arlo horretan, autoestimua eta autozaintza "lan handia" egin behar dela uste du, "astakeriarik ez egiteko". Zehaztera jo du: "Gizen egotea osasuntsua ez dela sinetsita egongo dira asko, baina argal egoteko buruko gaixotasunak izan dituztenak ere asko dira. Nire ama zenak esaten zidan gorputzari eskerrak eman behar dizkiogula, horri esker bizi garelako. Beraz, zaindu eta maite dezagun gure gorputza, eta adiskidetu gaitezen berarekin, bizitza bizitzeko da eta". ■





Orion oro hori?

Txiki-txikitatik, Orion kolore horia 'Aupa Orio' bihurtzen da, herriaren ikurra, sinboloa. laz, neskak nagusi izan ziren, arraunean eta plazan, denak gora begira.



IÑAKI ITURAIN iiturain@gmail.com

ARGAZKIAK: KARKARA ETA IÑAKI ITURAIN

Frantziako Tourrak hori kolorez margotu dizkigu bazterrak.

Martxoaren 22an, udaberria hasi berri, Donostia, Gasteiz eta Bilbo horiz jantzi ziren.

Donostian, iluntasunak hiria hartu zuenean, udaletxea, Tabakalera eta Kursaal horiz argiztatu zituzten. Orduan 100 egun falta ziren Bilbotik abiatzeko; eta Tour-ak kolore horia du: maillot jaune. Horixe ospatu nahi izan zuten egun hartan. Lasterketaren zuzendari frantsesak zioen ziklismo-zale euskaldunek irabaziko dutela Tour-arekiko zaletasunaren maillot horia mundu mailan. Ondo daki zer den marketina.

Naturan oinarrizko hamaika kolore omen daude: beltz, urdin, marroi, gris, berde, laranja, arrosa, purpura, gorri, zuri eta horia. Euskaldunontzat bost besterik ez dira:

Beltz, urdin, gorri, zuri eta horia; gainerakoak mailegatuak omen dira. Martxelo Otamendik hauxe idatzi zuen *Berria*-n (2023-02-12an): "Astero uraren kolorea aldatzen zitzaien erreka daukan herri batekoa naiz. Bagenekien une oro zer koloretako papera ari ziren lantzen hango paper-lantegietan: gorria, urdina, berdea...". Martxelo tolosarra da, eta Oria ibaia Europako ibairik zikinena zen orduan. Telebista zuri-beltza zen garaian, teknikolorreko erria

genuen, Tolosa aldean uretara botatako paper-pastaren kolorekoa.

"Kale gorrian bizi da". "Oso tipo zuria da". "Beltz lan egin dute". "Urdindu zaio ilea". "Itsaso berdea dugu gaur". "Marroi ederrean sartu gaitu".... Esaldi horiek guztiek esanahi jakin bat daukate, euskarak koloreari emana. Eta horia, zer? Ba al du esanahirik?

Kolore hori guztiak ez dira berdinak. Badira ñabardurak, baita izenak ere desberdintasun horiek markatzeko: horaila, horixka, horikara, beilegia, beilexka, larua... Bakoitzak eman nahi dion indarraren edo leuntasunaren arabera izendatzeko.

Hori kolorearen esanahiak

Hori kolorea, denboren hasieratik, eguzkiarekin lotu du gizakiak, argiarekin, eta urrearekin eta boterearekin. Gerora, garaipenarekin ere bai. Joko Olinpikoetan urrea ematen zaio irabazleari. Frantziako Tour-rean, Indurainek maillot horia janzten zuen, liderra zenean. Munduko futbol txapelketan Brasilgo selekzioa da titulu gehien irabazi duena, lau aldiz, soinean kamiseta horia zutela.

Baina, era berean, sineskerien arabera, zori txarrekoak dira 13a, zenbakietan; eta horia, koloreetan. Antzerkiko jendearen artean zabalduta dago horiz janzteak zori txarra dakarrela. Zergatik ote? Zera omen da arrazoia, Molière idazle frantsesa Parisko antzoki batean *Le malade imaginaire* izeneko bere obra antzezten ari zela, hantxe bertan hil zela 1673an, horiz jantzita.

Sindikalismoan ere ez du fama onik horiak: klase borrokari amore emanda, etsitzen duenaren ikurra da; prentsa horia, berriz, gezurretan aritzen dena. Gainera, kolore horiak erleak eta liztorrak erakartzen omen ditu. Denetarako dago.

Aurten (2023-01-12) Euskadi Irratiko saio batean kolore jakin batekin lotu zituzten zenbait herri. Bergara, mahonezko galtzen urdinarekin; Ezpeleta, hango piperren gorriarekin... Orioko kasuan, nola ez, horia aipatu zuten. Hainbat kontu atera ziren egun hartan Orio eta kolore horia lotzen dituztenak.

Orio eta horia

Aurtengo martxoaren 16an Uemako ordezkari bat herriko ikastolan izan zen LH2ko



Kolore asko plazan, sinbologia handia, balio asko: lehen lerroan, horiaren bertakotasuna; gero, berdearen ekologia, ortzadarraren aniztasuna, morearen feminismoa....

ikasleekin udalerrri euskaldunetz hitz egiten. Ariketa bat egin zuten: galdetu zien ea zer koloreekin lotzen zuten euskara. Oihuka, denek batera erantzun zioten, "Horiarekin!". Uemako kidea gustura joan zen. Haurrek izena aldatu ere egin diote koloreari: galdetuta ea zer koloreko arropa nahi duten, "Aupa Orio!" erantzuten dute askok.

Herri gutxi izango dira Euskal Herri osoan kolore bati Orio horiari bezain lotuak, bat baldin badago! Baina historian berri samarra da Orio kolore horrekin identifikatzea. Orioren horiaren historia 1940an hasi zen, Donostiako traineru estropadei lotuta, jakina. Ordura arte, zozkatu egiten zen arraunlarien atorraren kolorea. Orio askorekin lehiatu izan da. Aurreneko bandera, 1901ekoa, zuriz jantzita irabazi zuten Manuel Olaizolaren mutilek. Geroztik, berdez, urdinez eta morez jantzita ere bai, beti horiz janzten hasi baino lehen.

1940an, erabaki zuten talde bakoitza kolore jakin baten jabe izatea. Oriok bazituen bi arrazoi, gutxienez, horiaren aldeko aukera egiteko: batetik, ordura arte bost aldiz jokatu



Emakumeen trainerua, Getariko uretan, iazko estropadan. Nadeth Agirre, patroia.

zuten estropada horiz jantzita, eta hirutan bandera eskuratu. Bestetik, jatorria. Herriaren izena ibaiarenari lotuta dago: Orio Oriari; eta Oria horiari. Horixe erabaki zuten.

Nafarroako erdialdean, sanjoanetatik sanferminetara, soro ia oro horitu egiten da berdetik. Han bezala, Orion ere, sanpedroetatik aurrera, traineru



Ekainaren 20an, Zarauzko Udalak kultur merezimenduaren saria eman zion Anjel Lertxundi Esnal Zarauzko idazle oriotarrari: domina eta lore horiak.



2015-16 denboraldiko erregional mailako Orioko nesken futbol taldea. Gizonezkoen traineruko arraunlariaren kamisetaren kolorearekin hasi zen Orio eta horiaren arteko historia. Gero zabaltzen joan da.



Jon Salsamendi entrenatzailea, garaipen horia ospatzen.

estropaden garaia iritsita, horitu egiten da herria. Arraunlariak bandera irabazi eta herriak harrera egiten dienean, herriko plaza bihurtzen da hori-horia; bereziki, Kontxakoan. Azkenekoz, iaz, neskek irabazita.

Orio oro hori, horixe da Orioko herriaren historia jasotzen duen Antxon Agirre Sorondo historialari zenaren liburuaren izena. Baina oro ez da hori Orion ere. Oriotar asko

izan dira 1940tik hona, bestelako kolorea hartu dutenak arraunerako: Lasarteren hori-urdina, Zumaiaren gorria, Kaikuren berde iluna, Castroren gorria, Hondarribiaren berde argia... Orioren kolore horia jantzi dutenen artean ere badira beste kolore batzuetatik etorritakoak, batez ere azken urteotan.

Gaur egun, Orioko beste kirol talde batzuek ere (futbol, sofbol, eskubalo, saskibaloian...) kolore horia darabilte jantzian.

Estropada urte horiak

1968ko abuztuaren 25ean, Orion arraun olinpikoko nazioarteko estropadaren lehen urtean, Patxi Alkorta donostiar Orio-zaleak horiz jantzi zituen herriko kaleak. Ehunka globo hori puztu eta herritarrei banatu zizkien, arraun festari kolorea emateko. Egun hartan, zortzikoa Oriok Oxfordi estropada irabazita, arratsean, plazan sekulako festa izan zen: herriko gazteak The Beatles taldearen *The Yellow Submarine* kantari ibili ziren, saltoka: "Submarino amarillo es, amarillo es". Hurrengo urterako norbaitek egin zuen kantuarien euskaratze lana: "Submarino hori-horia, hori-horia".

2001ean 100 urte bete ziren azken balearen harrapaketatik, eta Orioren Kontxako lehen banderatik. Egun hartan bere 30.a irabaztekoak ziren horiak; lehenengo igandean aisa nagusitu ziren, bigarrenari 10 segundo kenduta. Udalak 5.000 puxika edo globo hori zituen prestatuta udaletxean (bat, herritar bakoitzeko), arraunlariak balkoian bandera astintzearekin batera globoak askatzeko. Dena prest sekulako

festarik handiena eta horiena ospatzeko; dena, salbu eta bandera irabaztea. Ez zen hala izan, Orioko arraun-zaleek inoiz izan duten frustraziorik handiena gertatu zen; hala ere, globo horiak erori ziren plazara zerutik, eta herritar askoren malko isuriak bat egin zuen globoen horiarekin. Seguru asko, garaipen horietan baino gehiago ikasi genuen egun txar hartan. Mutilek Kontxan irabazitako azken urtean, 2017an, Kike Amonarrizek txantxa egin zuen sare sozialetan, Orioko plaza dena horiz jantzitako jendez beteta ageri zen argazki bat erakutsiz, dena hori-hori. Orduantxe ari ziren katalanak bete-betean, independentziaren bidean, haiek ere soina horiz jantzita. Kikek, umorez, Espainiako (h) agintarien infartu-arriskua aipatu zuen.

Oriotarrentzat kolore horia ikurra da, sinboloa, momentu batzuetan hunkigarri eta magikoa, sortzen dituen emozioengatik. Horren adibide asko ditugu. Aitona Moxo arraun-zale eta jarraitzaile sutsu eta baikorra zen. Estropadalariak herriratzen ziren bakoitzean, han egongo zen, buruan txapela eta ezpainetan lorea, biak horiak, zain, arraunlariak noiz etorriko, bandera ukitu, mutilak estutu eta *Aupa Orio!* esateko. Hunkitu egiten zen eta hunkitu egiten gintuen.

Ortzadarraren koloreak

Baina kolore horia bera bakarrik baino ederragoa da zeruko ortzadar koloretsu anitza, osoa delako, kolore guztiak hartzen dituelako batera, osotasuna erakutsiz. Osasuna dakarkigu. Naturan

bezala, kulturen ere kolore guztiak komeni dira, endogamia erabatekorik gabe. Zourdin futbolari oriotarra iraindu egin zuten estadioan bere taldearen jarraitzaile batzuek. Beltza delako. Kolore bakarreko arrazistek gorrotoa erakutsi zioten, nori eta Zourdini, Senegaldik berdea, horia eta gorria, Oriotik horia, azal beltza eta izenean bertan urdina duenari,

ortzadarretik gertu dagoen mutilari. Arrazista horiek Antonio Machin kantari kubatarraren boleroa entzun behar lukete: "*Pintor, si pintas con amor, por qué desprecias tu color, si sabes que en el cielo también los quiere Dios?*".

KARKARAK martxoan Aia eta Orioko etxeetan banatu zuen *Dekorazioa 2023* koadernotxoan, etxeko paretetako koloreen eraginen gaineko artikulua zekarren. Hori koloreari dagokionez, hauxe zioen: "Kolore argitsua da, freskoa, zoriona ekartzen du gogora". Baina hau ere bazioen: "Etxean hori sendo



Donostiako udaletxea kolore horiz argiztatu zuten aurtengo martxoaren 22an, Frantziako Tour-a Bilbotik abiatzeko ehun egun falta ziren egunean.



Bederatzi kolore desberdin Orioko moilatik errioaren gaineko zubira igotzeko, mundura zabaltzeko.

edo bizi bat margotzekotan, horma bakarra margotu, hori kolore gehiegi izateak ezinegona eta frustrazioa eragin baitezake".

Jose Ignazio Ansorena txistulariak esana da: "Jatorriari maitasuna izatea naturala da; txertoak bezala, neurri egokian antigorputzak sortzen ditu, sendatu egiten gaitu; baina neurri gehiegizkoan, hil". Sendatzen duen botika eta hiltzen duen pozoia bereizten dituen dosia da. Eguzkiak, neurriz gain, erre egiten du; gehiegizko argiak, urreak bezala, itsutu. ■

'Xatorra' hasi da zulotik ateratzen

Hilabete baino ez da falta Aiako San Donato eta San Lorentzo jaiak iristeko. Guztia prest egon dadin, buru-belarri dihardu Aiako Jai Batzordeak, baina *xatorra* dela eta ez dela, nahiko lan dituzte. Aiako jaietako animalia da; noiztik, ez dago oso argi. Kontuak kontu, nahiko joku eman du urte hauetan.

Testua eta argazkiak:
Andrea Zipitria.

Arratsalde bero bat da, igerilekuan edo hondartzan egoteko moduko horietakoa, baina hala eta guztiz ere, nahitaezko bilera bat dute hitzartuta hainbat herritarrek; Aiako Jai Batzordearena, hain justu ere. Hilabete eskas geratzen da Aiako San Donato eta San Lorentzo festak izateko, eta zezena urre dabil jada; beno, zezena edo, hobeto esanda, *xatorra*.

Kultur Etxeko geletako batean elkartu dira lagun kuadrilla, adinak anitzak, eta helburua bakarra: egitarauko ekitaldi eta bestelakoak ixten joatea. Aritzek hartu du bilera gidatzeko erantzukizuna. Ordenagailua atera du, eta aurreko bileran egiteke zeuden eginbeharrak gogorazten hasi da. "Gazte egunerako, kamisetak egingo ditugu, ala zapiak?", galdetu du. "Eta, diseinua, nolakoa edukiko dute? *Xatorra* sartu beharko da tartean".

Horixe da, ba, misterioa. Aiako jaietako animalia *xatorra* omen da nonbait, baina zer dela eta? "Zer da, ba, animalia zatarra satorra", zioen batek; "esango nuke", erantzun besteak. Kontua da koska-koskan orain dela urte dezentet hartu zuela erabakia jai batzordeak Aiako jaietako animalia satorra izango zela, eta gaur arte animalia horrek irudikatu dituela Aiako festak; panpin bat ere bada, urtero-urtero, festetan plazako eraikin batetik zintzilik jartzen dutena, eta baten batek edo bestek ere mozorrotu behar izan du *xatorrez*, festei hasiera emateko.

Idea ona edo txarra izan, kontua da joku asko eman duela Aiako *xatorrak*.



Xator benenua

Esaterako, joan den urtean sortu zuten *xator benenua*. Txosnatik bueltaren bat edo beste egin zuenak ondo daki zer den. "Santio Errekatik dator ideia", argitu du jai batzordeko kideetako batek. "Han astoa da bertako festetako animalia, eta edari misterioitsu bat sortu zuten. Hemen *xatorrarekin* ere antzeko zer bait egin nahi genuen, eta hala sortu zen pasa den urtean *xator benenua*". Hasiera batean, *xator botika* izena jartzea otu zitzaien, baina "botika sendatzen duen zer bait" da, eta irudi hori ez zuten eman nahi. Hasierako burutapen hori garatzen joan ziren nonbait, *xator beneno* hitzera iritsi arte. Pasa den urteko jaietan, "arrakasta izugarria" izan zuen txosnan edari horrek, "botila osoak saltzen genituen", gogorazi dute. Horregatik, ospe horri jarraipena emateko asmoz, aurten ere litroka *xator beneno* prestatuko dituzte, festetarako. Errezeta zein den? Bada, sukaldari famatuek bezala, orri batean dute errezetaren sekretua zehaztuta, inork jakin ez dezan.

Festen bilakaera

Kontuak kontu, azken urte hauetan Aiako festek izan dute bilakaera, eta horren adibide da lehen aipatutako *xator benenua*. "Herritar gazte asko sartu da azken urteetan jai batzordean, aire berria ekarri dute", esan du jai batzordeko beterranoetako batek. Halaber, iritzi dio festak aldatu direla. Adibidez, "aldaketarik handiena izan da lehen gau bat pasatzeko kontzertu batekin nahikoa zela, baina orain, nonbait, azkartu egin da guztia, eta hiru kontzertu inguru ekarri behar izaten dira". Aldaketa gehiago ere izan da: "Lehen, festa egunak adinaren arabera zeuden jarrita; egun guztiek zuten bere etiketa. Publiko jakin batzuentzat osatzen zen bakoitzeko egitaraua. Hala, abuztuaren 6a gazteentzako eguna izaten zen, 8a umeen eguna, 9a ezkonduen eguna afaria eta guzti; eta 10a, helduen eguna". Horietako egun batzuk mantendu egin dira, baina beste batzuk galdu dira dagoeneko.

Tartean, ordea, badira denbora pasata ere ohiturei eutsi dieten tradizioak. Horien adibide dira elizako meza, pilota partidak eta buruhandiak. Aiako buruhandiek badute berezitasun bat, gainera. Beste lekuetan ez bezala, erratza erabiltzen dute Aian. "Beste eratako puxikak eta probatu ditugu, baina erratzek bakarrik funtzionatu dute". Eskobak erosi egiten dituzte, eta ondoren, moldatu, "zurtoina moztuta".

"Zirt-zart"

"Zirt-zart", halaxe dio Aian kantatu ohi zen abestiak. Zerikusirik, noski, ez du izango Aian txinparten bueltan festetan antolatzen ziren hainbat ekimenekin, baina tira. Kontua da, *piromano* samarrak izan direla iraganeko herriko festak. Kultur Etxeko mahaiaren bueltan kontakizun guztiak gogoratzen hasi dira, eta guztiek dute zerikusia suarekin eta eztandarekin. Hasi dira gogoratzen: "Haurrentzako baziren tutu antzeko tramankulu batzuk; sua eman, eta jostailuak ateratzen ziren airera. Urte askotan izan ziren horiek Aiako festetan, harrera oso ona baitzuten. Orion eskatu zizkiguten, ondoren hango festa batzuetan bota nahi zituztela eta". Aiarrek prestuki baietza eman, eta Oriora eraman

zituzten ale batzuk. Han, ordea, "ez zituzten behar bezala jarri edo ez dakigu oso ondo zer gertatu zen, baina herritar askok erredurekin amaitu zuten", esan dute. Haurrentzako jostailu trakarekin gauza bera gertatu zen. "Ideia kopiatu ziguten, eta Orion, nonbait, ez zen oso ondo atera", gogoratu dute barre artean. Kontakizun xelebreak ez dira hor amaitzen. Barrez hasi da bat, honakoa kontatu aurretik: "Urte batean erabaki zen jai batzordean globoak bota behar zirela plazatik. Globo bat ekarri zen, handia benetan. Lasa artista zen halako gauzetan, eta lau egun lehenago hasi zen pentsatzen nola egin, nola jarri... dena. Kotoiaren, alkoholarekin... denetarik probatu zuen. Orduan teknikoak Ixidro eta Lasa ziren. Bezperan bieie omenaldia egin zitzaion, eta plaka bana jaso zuten, urte askotan egin baitzuten isilpeko lana festetan. Hurrengo egunean atera zuten globoa plaza erdira. Herritar asko gerturatu zen, eta hesitu egin behar izan genuen eremua. Sua eman zitzaion, eta hantxe, gu esperoan eta esperoan, eta ezer gertatzen ez. Plaza erdian adarra jotzen hasi ginen denok *fuera fuera* egiten oihi. Mikroa hartu zuen herritar batek, eta zera esan zuen: beno, entregatu ditzatela bi hauek atzo emandako plakak".

Txupinazoarekin ere bada beste kontakizun bat, lau haizetara zabaldu zena, gainera. Nonbait, urte askotan, txupinazoarekin ez zekiten zer egin, ez nola asmatu. "Zerbait ezberdina" egiteko beharra sentitu zuten, eta berriz ere burutapen onik ez; zirt eta zart ibiltzeko gogoia piztu zitzaion beste behin. "Bonba tankerako tramankulu handi batzuk ekarri genituen, ikaragarritzko trasteak ziren", gogoratu du batek. Festak hasteko egun batzuen faltan, txintxo-txintxo hasi ziren "probak egiten ezkutuko leku batean". Kontua da, "bonbaren metxari sua eman eta soinu ateratzen hasi zela, eta gure artean, esan genuen: aterakoek-aterakoek. Ba, kaka, ezer ez. Leherketa izugarria, baina bertan lehertu zen". Hori ikusita, ondorioztatu zuten alderantziz jarri zutela; beraz, "buelta eman eta kito", pentsatu zuten. Guztiak itxura ona zeukan, plaza erdira erametako momentua iritsi zen arte. Orduan "segurtasun neurriak ez ziren hartzen". Plaza erdian jarri zuten bonba, eta "esan genuen: ezti jarri behar aurrekoan bezala e". Gogoan dute Donostia telebista bertan zela jazoera garrantzitsu hura irudiz hartzeko. "Metxari sua eman, eta proba garaian bezala, soinu arraroa ateratzen hasi zen: *fififififi* egiten zuen, baina orduan ere eztanda bonbaren lekuan izan zen, eta kameralariari alkandora erre zitzaion". Hori bai, lortu zuten Aiako festak telebistako hainbat kanaletan ezagutaraztea. ■



Aiako Jai Batzordeko kideetako batzuk bileretako batean.

**SUKALDARI FAMATUEK
BEZALA, ORRI BATEAN
DUTE XATOR BENENUA-
REN ERREZETA
GORDETA.**

**FESTAK PIROMANO
SAMARRAK IZAN DIRA.
JAI BATZORDEKOEK
GERTAKARI ASKO
DITUZTE GOGOAN**



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
Orio

943 89 92 43 / kaixo@zaragueta.eus
www.zaragueta.eus

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17

MENDIZABAL
AROZTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea • AIA-ORIO
943-83 11 75 • 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

SU
KIA

TABERNA • JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO • 943-89 21 29

IZARRA ELEKTROGAILUAK

6 OPARI
DENDAN
ETORRI ETA
PARTE HARTU

Instagramen
jarrai gaitzazu
eta irabazi

6 OPARI

12
URTE
ZUREKIN

Tien21

JARRAITU @izarraelektrogailuak

Eusko Gudari, 44 • 20810 Orio (Gipuzkoa) • izarraelectrodomesticos@gmail.com

Traineru kanpoko paladak

Ez dute arraunean egiten Patxi Francesek eta Jon Salsamendik, baina beren arraunlariak bezala, Orio Arraunketa Elkarteko traineru nagusietako entrenatzaileek dena ematen dute beren taldeak goren-gorenean ibil daitezen. Traineru denboraldi hasiera honetan, denboraldiaz zertzelada batzuk eman dizkiote KARKARari.

Lanerako jarrera, konpromisoa, laguntasuna eta fisikoki oso indartsua", esan du batek. "Egunero topera doazen arraunlariak izatea, entrenamendu bakoitzean guztia ematen dutenak", besteak. Jon Salsamendi eta Patxi Frances dira, Orio Arraunketa Elkarteko (OAE) gizonen eta emakumeen lehen taldeen entrenatzaileak, eta nor bere taldeei buruzko bertute bat azaltzen ari dira.

Uztaila iristearekin bat hasi da traineru denboraldia goi-goian dauden arraun taldeentzat, eta aurrenetik lana ahalik ondoen egiteko prest dira guztiak. Salsamendik argi esan du ligako estropada guzti-guztiek "garrantzia bera" dutela eta nahitaezkoa izango dela hasieratik gauzak ondo egitea: "Gaizki hasten bazara, zaila duzu aurrera egitea, eta prestijio gehieneko banderak abuztuan eta irailean direnez, garrantzia denei emango diegu, aurreneko estropadatik azkenekora arte". Dena den, onartu du Zarauzko Ikurrina "berezia" dela oriotarrentzat, eta "gorriz markatuta" izaten dutela. Erronkei dagokienez, berriz, zalantzarik ez dute entrenatzaileek. Gizonen taldeak "Kontxa irabazi" nahi du. "Handikeria dirudi, baina halaxe da", esan du Salsamendik. Afizioari, berriz, "ilusioz eta leialtasunez taldea bultzatzen jarraitzeko" eta "balkoiak horiz betetzeko" eskatu dio. Francesentzat ere argi dago helburua: "Liga irabaztea eta Kontxa irabazten saiatzea. Horiek dira gure helburu bakarrak". Estropadaren bat irabaztekotan, Zarautz aipatu du Francesek ere.

Testua eta argazkiak: **Onintza Lete Arrieta.**



Patxi Frances eta Jon Salsamendi, ekain
erdialdean, Orion, traineru
denboraldiaren aurkezpenean.

**"XEHETASUNAK
ENTRENATZAILEAK
MARKATU BEHAR
DITU"**

**"GARRANTZIA
ESTROPADA GUZTIEI
EMANGO DIEGU,
AURRENEKOTIK
AZKENEKORA ARTE"**

Emakumeen Euskotren ligan lau talde lehiatzen ziren orain arte, baina bikoitza izango dira aurtten, eta txanda bakarrean beharrean, bitan ariko dira. Beldurrik ez dute oriotarrek, ordea. Francesentzat "konplikazioa dakar, baina era berean, eman beharreko pausoa zen emakumeen arrauna indartzeko, ETE liga ahaztu gabe, hori baita oinarria".

Entrenatzaileen egitekoa ez da nolanahikoa: estropada ona egiten denean arraunlariei eta patroiei eman ohi zaie meritua; txarra egiten denean, entrenatzailea jo ohi da errudun. Dena ez da zuria edo beltza, ordea, Salsamendirentzat: "Emitza txarrekin, publikoki behintzat, erantzunkizuna entrenatzaileari bideratzen bazaio ere, ez dago triste eta minduta etxeratzen ez den arraunlaririk. Beraz, hori guztia, talde lana izanik, denon hartean bizitzeko eta partekatze zerbait da". Francesek gaineratu du xehetasunen ardura entrenatzailearena izango dela beti: "Taldek batek, ondo edo gaizki, baina %100ean lan egiten duenean, xehetasunak entrenatzaileak markatu behar ditu, eta talde horrek ez badu funtzionatzen, %80 entrenatzailearen errua izango da; oso argi dut hori, talde oso konpetitiboa daukadalako".

Francesek iazko irakaspen bat ere badu gogoan: "Iaz, iritsi nintzenean, asko lagundu zidan hemen zegoen goseak, bai irabazteko, bai entrenatzeko, bai konpetitzeko... Eta, zentzu horretan, beheraldian gaude; normala da. Baina, espero dut, hemendik aurrera denok saltsa hori pixka bat berpiztea, gogo horiek nabari daitezen".

Salsamendik bezala, Francesek ere badauka mezua afizioarentzat: "Jakín dezatela den-dena emango dugula, eta momenturen batean nahi ez dugun tokian baldin bagaude babes gaitzatela, hurrengo estropadan gogo eta arma guztiekin aterako garelako irabaztera". ■

GIZONEZKOAK

EUSKO LABEL LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak klubean	Jaioterria
Bersaltz Azkue	41	6	Zarautz
Andoni Campos	33	12	Orio
Jon Carazo	33	9	Barakaldo
Kepa Elizagirre	30	0	Aia
Iker Eizmendi	29	5	Getaria
Alexander Esteban	46	7	Castro Urdiales
Joritz Etxeberria	35	1	Donostia
Ander Etxegoien	36	9	Getaria
Jon Iriondo	47	11	Ondarroa
Martin Leboran	27	0	Santiago de Compostela
Mikel Lizarralde	22	9	Orio
Aritz Lizarralde	29	15	Orio
Jon Lizarralde	24	9	Orio
Xabier Manrique	30	6	Donostia
Alain Osanbela	38	4	Donostia
Josu Ostolaza	32	11	Usurbil
Leandro Salvagno	39	2	Colonia (Uruguay)
Javier Sayans	28	0	Boiro
Jon Urresti	31	0	

Entrenatzailea Jon Salsamendi

EMAKUMEZKOAK

EUSKOTREN LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak klubean	Jaioterria
Nadeth Agirre	30	15	Orio
Maialen Aizpuru	30	8	Getaria
Maddi Alkain	21	8	Aia
June Aranbarri	30	1	Ondarroa
Amaia Arregi	28	8	Aia
Ane Arruti	22	8	Aia
Itxaso Azkonobieta	26	13	Orio
Nahia Badiola	21	0	Ondarroa
Eider Barba	25	1	Hernani
Alaine Bereziartua	25	1	Aizarnazabal
Marina Sofia Cosci	29	1	Buenos Aires
Ainhoa Etchenique	19	0	Baiona
Leyre Garate	35	9	Elgoibar
Ohiane Iraola	31	12	Tolosa
Helena Merino	26	1	Badalona
Andrea Oubifia	33	1	O Grove
Maria Victoria Piñeiro	40	4	Cangas
Edith Uranga	21	9	Orio
Mireia Uranga	27	9	Orio
Nagore Urdapilleta	23	1	Bidania-Gozia
Uxue Urre	23	1	Iruña
Noa Viaño	23	1	Redondela

Entrenatzailea Patxi Frances

BABESLEAK



ARRAUN DENBORALDIA 2023



ORIO
ARRAUNKETA
ELKARTEA



ESTROPADEN EGUTEGIA

UZTAILA

Eguna	Estropada
8	Donostiako Bandera
9	Zierbenako Bandera
15	Bilboko Bandera
16	Orioiko Bandera
22	Sestaoko Bandera
23	Castro Urdialesko Bandera
29	Getxoko Bandera
30	Santurtziko Bandera

Lehiaketa
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren
TKE
TKE
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren

ABUZTUA

Eguna	Estropada
5	Hondarribiko Bandera
6	Lekeitioko Bandera
12	Moñako Bandera
13	Boiroko Bandera
19	Zarauzko Bandera (1.jardunaldia)
20	Zarauzko Bandera (2.jardunaldia)
26	Ondarroako Bandera
27	Getariako Bandera

Lehiaketa
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren
TKE
TKE

IRAILA

Eguna	Estropada
16	Bermeoko Bandera Play Off 1
17	Portugaleteko Bandera Play Off 2

Lehiaketa
TKE/Euskotren
TKE/Euskotren

KONTXAKO BANDERA

Eguna	Estropada
Abuztuak 31	Saillapena
Irailak 3	1. jardunaldia
Irailak 10	2. jardunaldia

UPA OPIOI





"Arraunean elkarrekin baldin bagoaz, txalupa hobeto doa"

**IDOI BERALALUZE ETA
MIKEL ARANZABAL**
IKASTOLAKO GURASOAK

Aurten, aspaldiko partez, gurasoen bitartez antolatu da Ikastola eguneko bazkaria. Leizeren aita eta Lur eta Izarren aita ibili dira horretan, beste askoren artean. Denen izenean, horiexek elkarriketatu dituzte LH3ko Ganixek, Xabierrek eta Uxuek.

Nolatan aldatu da bazkaria egiteko era?

Mikelek Kultur taldean proposatu zuen aldaketa. Helburuak hauek ziren: herritik herriarentzat izatea eta gurasoak inplikatzeko –Ikastola eguna ez delako ordaindu eta esertzea bakarrik –eta, batez ere, haurrei erakustea kooperazio bitartez, lagunartean, ondo pasatuz, gauzak lor daitezkeela. Baita herriko merkatari eta ekoizleei erostea eta ditugun baliabideekin bazkaria prestatzea ere. Gainera, era honetara, bazkaria merkeago jartzeko aukera izan dugu.

Zenbat pertsona ibili zarete guztia prestatzen? Zenbat pertsona etorri ziren?

40 pertsona inguruk egingo genuen lan, tartean DBH3ko ikasleek, eta 400dik gora pertsonak bazkaldu zuten.



Zenbat denbora behar izan zen bazkaria prestatzeko?

08:30ean hasi ginen, eta juxtu-juxtu iritsi ginen bazkariko ordurako. Egunean bertan, bost bat ordu pasatuko genituen, eta bezperan ere, bost-bat.

Zergatik egin zenuen lan ez baduzu dirua jasotzen horregatik?


Saltsa gustatzen zaigu (kar, kar, kar). Dena ez da dirua.

"DENA EZ DA DIRUA. HERRI BAZKARIA ZERBAIT EDERRA DA, PARTE HARTZEAK BALIO HANDIA DU"

Herri bazkaria zerbait ederra da, jende mota ezberdina, iritzi eta adin ezberdinetakoak elkartzen diren momentu bat da. Parte hartzearekin egindako bazkari bat izateak, horrek balio handia du. Harreman osasuntsuak sortzeko ere asko balio du antolaketan egoteak, aspaldiko jendearekin egon, jende berria ezagutu... Txalupa berean baldin bagoaz eta arraunean elkarrekin baldin bagoaz, txalupa hobeto doa, eta gutxiagotan jartzen da zalantzan iparra.

Gustura aritu zarete lanean?

Bai, oso gustura egin dugu lan. Lan pixka bat izan da, buruhauste batzuk izan ditugu, baina merezi izan du. ■■■



Bost itsaslapur hauek sekulako altxorra dute zain, baina bik besterik ez dute bidea aurkituko. Nortzuk?

ALTxorren bila

SUDOKUA


	U			H	N
N		H			U
		Z	U		
	N		H		Z
	H			Z	U
	Z	N		I	

Loroek hiztun fama dute, ezta? Bete itzazu hutsuneak **HIZTUN** hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (H, I, Z, T, U eta N). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Baietz HAMABI!

Horra hemen bi itsaslapur. Bata bestearren ispilu direla ematen du baina ez dira erabat berdinak. Aurkitu bien arteko aldeak. 12 dira guztira.



Bikotea

Loro hauenartetik bat bi aldiz ageri da. Zein da?

Soluzioak ikusteko:

www.plazanbazan.eus/

DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK



San Juan auzoa, 16
AZKOITIA
943-85 21 10

Geltoki bidea, 1
ZARAUTZ
943-13 50 16

Santiago auzoa, 12
ZUMAIA
943-14 34 43